

**N
A
-
G
A
B
E
N**



MELO ALFEREZA

NAIGABEZ

MELO ALFEREZA

NAIGABEZ

EIBAR

1979

Dep. Leg. S.S. 591/79

I S B N 84 - 300 - 1638 - 4

IZARRA Irarkola — Poligono 36. Usurbil. — Azaroa 1979

ITZ BI

*Aurkez. Bear al du? «Naigabez» du titulu-
tzat. Edonork ditu bere kezka ta naigabeak; ez,
iñork ere ez du ortik iges egiterik. Nobelaria,
edo obeki, idazleak asmatu duan nor au ere,
ots, Ramon gaztea, oiñazepean dakusgu, beste
edozein gizaseme bezela, aizeak darabilen or-
bela iduri.*

*Eleberri pitin au iru zatikoa duzu. Lenen-
goari loturik, nor ori —Ramon— kabian toki-
rik ez duan txorikume zapuztua lez, sortetxetik
bota zuten, etxaguntza edo maiorazgua zalako.
Bordatik, bere baso-etxetik atera bearra izan
zuen.*

LEN-ZATIA. — Beraz, jaiotetxeari agur egiñik,

*munduko naspillera jo du Ramon-ek. Zer ger-
tatuko ote? Ondo dio idazleak: «Ene borda,
ene sorlekua madarikatu ondoren, inpernu bizi
biurtu zitzaidan biotza; eta biotzak orain, gaua
igarotzera, beste gaitz-zulo batera narama, za-
kur gosetiak bota zaion aragi puska loia na-
rrasten duan antzera. Emendik aurrera, nere-
tzako, orixe besterik ezta izango iduritzen
zait mundua. Zoriaren gaiztoa!».*

*Lan billa dabil. Ez du aurkitzen. Gauetz
trenean doa, noraezean. Ez daki nola, baiña
gaua giltzapean igaro du, bere-berea zan borda-
ren itxurarik ez zuan kartzelan. Emendik ur-
tenda, itxasorantza dagi: olatuak jolasean bits
txuriekin. Gai bion maite-txera goxoa! Olako-
rik ez da beretzat. Lerden-lerden dago Donos-
ti: usoak, neskatillak... Bera, ordea, naigabez,
oiñazez, gosez.*

*Kaian aurkitu du lana. Iru lagun egiñak
ditu bertan: Mikel, basotan aizkolari ibillia ta
orain Donostian ezkondua; Iñigo, azpeitiarra,
alai ta ezkongea; Txomin, donostierra, tripazain
ikaragarria; auekin zebillen lanean, baita txiki-
toak artzen ere. Mikel'ek berak eman zion baz-
ter bat ere, etxean, aterpetzat. Laster, senar-
-emazteen biotzak irabazirik, etxeko egin zan.
Beraz, etzan nolanai bizi gure Ramon.*

Teresa, Mikel'en emaztea, begikoa da oso. Egun baten, Mikel kanpotik dala, Teresa ta Ramon alkar-izketa goxoan, ia maitemindurik.

Mikel'ek tabernara darama sarri; ango giro kutsutua... Adiskide bien eguneroko autua: ugazaba ta langilleak, emakumak, aragia, zirtzilkeria... gure baserritarra nazkateraiño noski, ondartza egalean zakar ugari biltzeraiño... Andik irtenda itsas aldera doa naigabez.

BIGARREN ZATIA. — *Teresa kezka, ta maitemindua. Ramon nun ote? Kaian eta, galdezka. Ez da lanera joan. Ez da ageri. Gero ta kezkiatigo Teresa: «Ez zaitut zu nere —diotsa senarrari— Ramon dut maite». Baiña Ramon etsaiak edo inpernuak jan dutela dirudi; ez da iñun agertzen.*

Mikel ametsetan. Or nun doan ontzi aundia, kea dariola, Pasai alderantz. Mikel'ek ere kee beltza dauko barnean; garrastuz doakio gibela. Mikel eta Teresa'ren arteko autu garratza. Ramon'en jantziak... «Ramon, Ramon! Emen zure pardela...!»

IRUGARREN ZATIA. — *Naigabearen naigabez. Baserritar gaxoa! Zer bait lortu ote? Baiña bertatik ekaitzpean! Autsa... Trumoia... Osto tartean sugeak... Muiño muturrean Ramon,*

Asalar alderantz begira. Itzala du lagun. Euskal mendiak dakus eder ta txairo: Gorbea, Aizkorri, Andia, Urbaso, Txindoki, Udala, Urko... Zu Euskalerra lur zoragarri alako ori! Baiña aizea ixil! Lege zarrak ja-jai! Jainko, nun zera Zu?...

Ramon motzaillekin. Lau ume koxkor, bi emakume ta iru gizonetzko ditu lagun. Euskaldundu motzailleak dira. Lo bitartean ametsak nara: borda, etxeakoak...

Neskatxak ez dutela baserrira ezkondu nai esaten duten arren, Iñaki, bordako len-semea Azkoiti'ko alaba Miren'ekin ezkondata bizi da bere jaiotetxean. Lenbiziko aurtxoaren zai dau-de. Baiña maiz izan oi dituzte illunaldiak; Iñaki'ri Ramon datorkio sarri gogora. Ez dio ezer esan nai emazteari, baiña Iñaki triste dago. Emazteak: «Iñaki, zer gertatzen zaizu?

Iñaki ona da; emazte on liraña dauko etxean. Zoriontsu izan bear luke; baiña ez da. Bere anaia, Ramon, bigarren anaia, jaiotetxean lekurik ez zualako, etxetik urrutiratu zanetik pake gabe, naigabez bizi da. Ez dute anaiaren berririk. Nola bizi ote da? Bai ha; odol batekoak dira; badu galdera orrek bere mamia.

Zuri ageri da muiño-ertzeko baserria, zelai ta zugatzez inguratua. Antxe bizi dira ezkondu

biak, Iñaki ta Miren... Baiña naigabearen arantzazta dute biotz-ondoan sastaka.

* * *

Ona eleberri labur onen mamia. Lege arrunta zan len batez ere gure baserrietan: seme asko, ta bat bakarrik etxerako; besteak zori billa, naiz mendira, naiz solo ta uri nagusietara lan billa; eta ez gutxi itxaso aundiz andik artzaintzara, Argentina, Kalifornia ta olako tokieta. Zori obe billa!

Ipui antza du lantxo onek, alegi mingotsa dirudi. Bizi-bizi jartzen ditu egilleak Ramon'i jazoriko zer asko, etxetik alde egin ondoren jazotakoak. Asi ta amaitu, jataldi eder baten antzera, errez ta gozoz irensten da edeski au. Ez da sakona, ezta ertzik asko illunetan dituzten aietakoa ere; ez, zine-mintza dirudi, arin bezain argitsu dabillena. Egilleak beti egin du orrela: gai xume bat arturik, bera lainoko azal-erazi.

Galen bedi guztiontzat Ramon'en bizimolde larria. Baita kupibera ere. Etxetik egotzia, dirurik gabe ta noraez gorrian, ez da arrigarri olakoak edozeri agur egitea: Jainkoari, familiari, odolari... trokarik lotsagarrienetan goizetik gauera amildurik.

Idazle au ezaguna da lendik ere, Aita Karmel Zubizarreta, 1927-VIII-27'an, Azkoiti'n jaioa. Karmeldar. Naparruko Billafrankan, Larrean, Iruñan eta Gasteizen egin zituan leen-ikasketak, Teologia ta abar Begoña'n bukatu-rik; Azkoiti'n abestu zuan bere meza berria, 1952'an, Iñaki Deunaren egunean. Ondoren egotaldi batzuk Larrean eta Eibarren egiñik, soldaduzka osotu bear izan zuan, Burgos, Leon, San Javier ta Constantina'n.

Soldadu zegoela asi zan idazten. «Karmel»-en ezaguna zan bere izenordea: «Melo Alfereza». Sei urtetan Eibarko nagusi izana, gaur ere bertan daukagu «Karmel» aldizkaria-ren zuzendari. Izen-ordeak erabili ditu: «Goiko-Kale», «K. Z», «Zubizarreta», «Melo Alfereza».

Bizi ta errez du idazten. Irakurleak eman bear omen du bere eritzia. Nik emana dut. Zuk ere irakur, eta eman ezazu. Eder dugu, izan ere, kritikalaria zintzoaren esana.

Larrea, 1979-5-2'an
AITA ONAINDIA

**LENENGO
ZATIA**

I

Nere bizitza, mendi goian, oso zitzaidan atsegin. Bordan jaioa, antxen ziran gau ta egun nere amets urdin guziak. Belar tartean, oso egoki ta zoragarri; garo usai biguiñez gozatuta, pago tantai zarrak zaindari zituala, antxen zegon txuri-txuri ene borda. Ua polita, politik baldin bada! Edo, bazan!...

Aita-amarik ez dut orain: eriotzak eraman dizkit azkar. Mundua garratza baita, miñak joa dut biotza. Aita-amak paltatu ezker, euskal erriko bordatik maiorazgo ez diran semeak iges egin bear. Ni bigarrena naiz. Etxetik iges egin bear... Samiñaren eztenak odoltzen dit barrena.

Ene anaiaetik nagusiena aspaldin ez-konduta dago. Iru poxpolin txiki ditu. Aingerutxoak, noski, on eta goxoak. Baiña aurtxo oien ama... Etsai zakarrenak ere eztu orlako biotz itsusirik. Begi aurrean baldin ba nauka, sua dariote aren begi biak, itz zikiña aren mingaiñak: gorputzak, arpegiak, ezurak ixeka ta burla neretzako.

Anaia, egiaz, eztut ain biotz zeken. Ene amaren semeak biotz goxoak izan bear, bera biotz samurra baitzan. Baiñon ezin... Ez! Neretzat ezta tokirik kabian. Kabitik lota egiten naute. Ez, alegia, anaiak. Kofiatatak ere ez... itzez beintzat. Baiñon, bere begietako suak, bere arpegiko beltzak, ez ote dira aski, indarrez, ni bordatik atarira, kanpora, beste mundura ateratzeko? Bestosko illunaren sista biurria!

* * *

Gau nahasia zan. Laiñoak azkar zebiltzan, ipar-aizeak zirikatuta. Trumoiak gogorki jotzen zuan, luze... Tximistak, lenda-bizi zeruak eta lurrak ebakiz, gero illunpeko beltzean arbolak pintatzen zituzten sorgiñak izango balira. Trumoia ixiltzen zanian,

ukulloan zakurra zan zaunkaka. Ene adiskide zakurra! Makiña bat aldiz, or urbilleko arkaitzetan ibilliak gera, axeri billa; baita, goizean goiz jaikirik, zenbat aldiz basoan zear, mendian barna, erbitan! Beti saltoka ta alaitsu. Gero ez dut txakurrik ikusiko. Beste askori bezela, agur iri ere, ene zakur!

Beltz bai gaua. Beltzago ene barnea...

Ene bordari, ekaitzaldi zurbil nahasian, agurra ematen diot. Gauan ateratzen naiz, besteak oean dirala. Nola atera, egunez! Ene borda txuria, nola utzi eguzkiz? A!, ortarako ez dut biotzik, ez dut kemenik .ez, egun argiz ez nun indarrik izango, ene borda, ene anaia, ene aita ta ene ama zana... madarikatzeke.

Bai, ene biotza garratz dago. Ene biotza miñez, bordarikan gabe, jaio ta azi nintzan kabirik gabe.

Agur, borda! Baiñon, madarikatuak...

II

Beltzera jo dut. Garratz-lerdea darit biotz barrenetik. Bizitzarekin naskatua nabil. Noraezaren eskuetan jostallu egoki.

Ene sakeleko txanponak, ezpaitziran amaika, berealaxe igestu zaizkit. Txanponak! Zorioneko diru-ezkurrak! Nere gurasoak, euskaldun gurasoak muiñetaraño sartu duten kezka ta griña, noski. Txanponak! Ene begien atsegiña. Txingar antzean dizdizka, egon eziñean jartzen zaizkit. Argizka, zabal-zabal, katuari gau illunean bezela... txanponaren aurrean neri begiak. Bai! Eta... negarka, tripak eta estiak, elurtean goseak arrapatu ditun baso-txakurren antzera, orroaz... Txanponak!!!

Amaika etziran, ez. Onegatik laister jostatu ditut, gaua izan arren; gañera etxe itsusian. Naigabeak indar izkutua du, ta illunpera bultzatuz zirikatzen duala dirudi. Ene borda, ene sorlekua madarikatu ondorean, inpernu bizi biurtu zitzaidan biotza; eta biotzak orain, gaua igarotzera, beste gaitz-zulo batera narama, zakur gosetiak bota zaion aragi puska loia narrasten duan antzera. Emendik aurrera, neretako, orixe besterik eztala izango iduritzen zait mundua. Zorioaren gaiztoa.

Gau illunean, oraindik, beltz-illun daude ortzeko lañoak; tximista-trumoiak dira jabe ta jaun goi muturtuan, ene gorputza emakumeari eskeintzen diotalarik. Eta gero, bertatik, ugolde bezela naska sortu zitzaidan zentzunetan, kezka biotz-animetan; eta bat-bateko erabakiz, nere erropak emakume aren atzartean utzirik, urduri ta artega igesari eman naia piztu zitzaidan barnean. Iges egin... Baiñon noruntz? Noruntz joan, aterperik ez ba nuen, bordarik ez ba neukan?

Besteak, sobratu zitzaizkidan txanponak, aizeak eramán dizkit orbela iduri. Eda-

ri bizikor paltarik ez dut izan goizeko orduetan. Eguerdian, kaxuela, nere barnea gozatzeko, eskatu dut trabenan. Baita eka-
rri ta nik galanki jan ere.

Orain eztut txanponik ene poltsikuetan. Laisterka gastatzeko griña izan dut erraie-
tan, txanpon oiek ez ote zuten nere biotza
pitin bat, edo obetoxego, pitin bat baño
geiago bordarekin lotuko? Borda usaia su-
tara noski. Txanponak traizioaren seña-
le izan alegia. Ez dut olakorik bear nere bi-
zitza berrian: likin, simaur biurtzen ari zi-
tzaizkan ene sakelean, eta uxatu egin bear
oien itxura ere, gastatu egin bear lenbai-
len.

Ez dakit zergatik, baña txanponik gabe
lasaiago ta atsegiñago nintzan. Beltza txu-
ritzen zijoala uste. Bordaren sorginkeritik
azke nintzan. Jaio-berri...

III

Dundun zarrak laurak jo ditu. Zer asmoz? Burlezka, alegia. Ontzaren ulu aspergarri zirudian. Ene gaua munduari kanta naia ote dun pentsatu dut. Apaiza antxen zegoen elizako eskillaretan, irriparrez, arpegi ta esku kiñu bizian, aurtxoekin izketan.

Ene buruak ametsari dei egiten dio. Eta ametsak, bat-batez, aurtxo biurtzen nau. Urte goxoak, noski, nere aurtzarokoak... Sukaldean, siñismenak ongi egiñak zitun bere sustraiak. Itxuraz beintzat. Aurrekoen uste-kutsuan, aitona ta amona zarren legian bizi giñan guziok, mendiko patxaran.

Mandioa patataz, artoz, gariz, belar-garoz betetzen saiatuko giñan, baiña otoitzerako ere beta artuko genun. Ikusgarria zan gure amonatxo! Borda artan etzan dundun zar bearrik otoitzerako; amona zan oiuka: «Utzi, utzi lana; beiak badute janaria. Orain otoitz egin bear degu, otoitz Jaunari eskerrak emanez. Ez dezute or, kanpoan, aizea txistuka sumatzen? Animak dira. Otoitz eta erregu eske datozkigu. Asi gaitzen! «Aitaren»... «Aintza Aitari»... «Graziatzko eta errukizko Ama»...

Errosarioaren agur-mariak, illunabarre-
ro, egazka zebiltzan gure sukalde ta goiko
zeru bitartean. Bai, illunabar guzietan ber-
din: gizonak otoitzean eta bei-idiak uku-
lloan mauka gelditu gabe.

Bi indar-ari noski oiuka, deika, kezka.
Ukullokoa, lurtarra, aberearena, sabela be-
tetzeko zerbaiten eske. Sukaldekoa, abe-
retasuna menderatu naian, biotzean oi-
lari.

Ene gurasoak, eta amona bizi zalarik
amonak, —ua baitzan erregiñ eta agintari
bordan—, eskolatu ninduen umetatik. Pi-

per egiterik ez neukan. Belarrietatik, be-realaxe, turetuko zidan amonak bere esku ximelakin. Ao sapaian itzok zituen, noski: «E, biurria, alproja txiki, nundik nora ibilli aiz gaur? Aideko mutiltxoak emen uan, maistrearen ordenaz; kabi billa nunbait. I zozoa, i birigarroa!»

Bide ziorretan zear joan bear izaten nun. Batzutan, elurte bizian, alkarri mutiltxoak elurra botatzen; bestetan, lokatz tartean, zikin-zikin; orain, txorien txio-txioak alaiki entzuten. Eta geienez, askatasun miñez. Ez nuan ikastetxera joaterik nai. Zertarako? Gañera, askotan, zeru-lurrak nere kontra nituan. Bide guzian euria erortzen, erruki gabe, nere soin txikira. Elurra zanean otz-otzez allegatzen nintzan eskolara. Askoren aurka altxatzen zitzaidan biotza. Eguraldi ona zalarik, berriz, naiago nun zelaiaro, eta bertan basoan auntzak bezela ibilli, airean eta arboletan txoriak bezela jolastu.

Aurtxo nintzala, jolaserako nun griña; eta kanpoan zan nere poza: udaberrian kil-kerra zulotik ateratzea, sasia zozoaren ka-

bia bi edo iru zozo-kumerekin arkitzea, kerixa-arbolan zintzilika kerexak jatea, bazterretan marrubi txit gorriak biltzea. Ez, eskola etzitzaidan atsegin. Onegatik, eskola barruan soiñez egon arren ere, nere gogoia atarian, kanpoan zan. An zebillen beti egaran.

Maistra sorgin zitzaidan. Ez nion deusik konprenitzen. Auskalo nundik etorria zan gure mendi muñora! Noizik eta bein, erriko apaiza ere agertzen zitzaigun. Zitela benetan! Ua eskolan zan bitartean, euliak arrapatzerik ez gendun izaten: apaiz-begiak biziak baitziran mutil koskorrontzat, eta bere eskua azkar koskorrekoa emateko.

Nere siñismenaren arriak oietzek ditut. Sukaldea ta eskola, eta erromeriak. Bañon, ermitako santuak, aintziñan, urte zarretan santutuko zituzten erromesak. Nere egunetan indar aundiagoa dute noski tuntunak eta baltzioak. Ermita inguruan, illunean gauza garbirik etzegon. Eta, ala ta guzti ere, atsegiñez neon. Amonak bakarrik izaten zuan kopeta zimur. Erromerian nere biotzak etzeukan otoitzik Jaungoikoaren-

tzako. Erromerian sukaldeko pakea galtzen zitzaidan. Erromerian... A!, nork zirikatu ote du nere biotza gauean pekaturako? Nork jarri dizkit pekatu tresnak larru gorri, ain lotsagabe, nere aurrean? Zeñek, Jauna? Nere amak, nere aitak? Nork, Jauna, nork? Sukaldeko otoitzak ez beintzat...

IV

Ez ninduen gaizki artu. Nere begien naigabea ta garraztasuna ikusirik, kezka gelditu zirala dirudi. Apaiz-etxean ez nun izan ongi-etorririk; baiñon, egiaz, ez ninduen gaizki artu.

Aitortzerik ez nuan nai, damutzeko indar gabe bai nengon. Utsik neukan biotza. Naigabeak eta zoritxarrak menderatua zeukaten, elur zama astunak pago-beso billosa bezela. Bordan nintzalarik, gezur-izpiak ere min eman oi zion nere biotzari. eta auek ere aitortzera apaizarengana joten nuan. Gaur eztet olako kezkaen zimikorik. Gaur... gabeko zerak ere eztit barnea ozkatzen. Nola aldatu naizen!

Tripetako utsunea asetzeko ogi-puskarik ez dutenak, ezta ere aragiak estaltzeko zarpil ta trapu zatarrik, Jaungoikoarengandik urrutiratuta ibiltzea, berezkoa deritzait. Zoritxarrak gaitzera bultz daragi, lanera zirikutzen du. Zoritxarrak eriotzari deitzen dio. Ta eriotzan itxaropenik gabeko dei zurbillaren takada gordiña.

Ez nun nai adiskiderik. Ez! Apaizaren adiskidetasuna geiegia iduritzen zitzaidan. Ez. Apaizari «Berori» esatean, nere mingaña ao sapaiari lotuta jelatu egingo zitzaidan. Ez, adiskiderik ez nuan nai. Sakelean txanponik euki ezta ere, borda ta sukaldetik nere izan ez arren, nere burua arro zegon, nere burua etzan besteak baiño txikiago ta itsusiagoa. Txiroa ere aundi noski. Pobrearen eta aberatsaren biotzak, aragizkoak alegia. Berdiñak...

Apaizari auxe esan nai nion:

«Jauna, bordatik atera naiz, Bordan jaiota eta atzo bordan izandu nintzan. Osasuna badut. Lanerako laister prestatzen da ene gorputza. Uri ontan lana billatu nai dut. Izango ote nuke beorren bidez? Eta, jauna,

mesedez, borda konturik ez aitatu, tutik ere esango ez diotelako».

Berealaxe nintzan atarian. Apaizak, paxaraz, itzok soltatu zituanean: «Ene seme, denbora txarretan bizi gera, krisispean gera... Saiatuko naiz... Ez estutu... Zaila da lanaren...», agurtu ta kalera nintzan.

«Ene seme»... Bordako semea nintzan. Beste aitarik ez nun nai. Bordakoa madarikaturik neukan. Beste aita ere madarikatu bearrez izango ote nintzan?...

Urrengo egunean etortzeko zion, atetik, apaizak. Kanean, goitik beera ta beetik gorra ibilli nintzan, lozorrotua bezela kanpora irtenik. Lotan neuzkan euki ere kopeta ta arpegia. Illuna nagusituaz zijoala, konturatu gabe, estazioan nengoan. Ez nun jenderik ikusten. Illuna, naigabea, ene zainbarrereko sukarraren bizia. «Azkar, gizon; zatoz laisterka: trenak iges egin bear dizu». Orixe besterik ez bai nuan entzuten. Sorginkerizko indarrak bultzata trena artu nuan. Berealaxe, trenean, suak gozatu zidan gorputza.

V

Bart kartzelan pasatu dut, Donostia'n euki naute giltzape. A nolako tokia! Eztu ene bordaren itxurarik.

Nere begiak iriki ziranean, erotu ote nintzan ere pentsatu nuan. Nundik nora ni trenean? Eta, zer zion aurrez-aurre neukan bigotedun gizon luzeak? Billetea? Eta besteak, ordea, arpegia gogorragoa. Identidad edo, nik al dakit, zer eskatzen zidan? Erotua nengoan, edo bestela Santagedako atea zabalik ziran.

Alare, Donosti'n arkitzen nintzan. Egia aitortzeko, ez nuan ezertxo ere. Bordatik

ateratako pardela an, lizun-toki artan geiditu zan, aitzurik. Ez nun izango, noski, kartzelatik erreklamaterik. Eta nola aitortu? Lotsaren lotsaz gorritu egingo nintzake... Pardelean nere jantziak: iru pare galtzak, dozena erdi bat praka-txiki zuri, lau alkon-dara urdin, dozena erdi bat artillezko gal-tzerdi ta traje berria.

Momentu ontan bearrezkoak nitun. Nere kartzelak luzera ez bai zekian jo, lanerako bearko nitun laister. Errurik ez, deliturik ez neukan. Onegatik laister aterako ninduen giltzapetik. Gero lana, lana izango nun adiskide; bai, lan egingo nun gogotsu.

* * *

Gau oroiz asean. Arkaitzean indarrez puskatzen ziran olatuak. Udara azkeneko ego-aize zakarraren ulua bordako tximinian iduritzen zitzaidan. Burni-aga sendoz joseriko leioan neri begira geratu zitzaidan ontzak, gau illun batean gelapera, deadarka, etorri zitzaidan motxaille zikin mozko-rra gogoratzen zidan. «Anaia il zak; bes-

tela berak jango au» zion orduan motxai-
lleak leiopéan, eta bart orixe ziola zirudian leio ertzean ontzat...

Urrutitik ixil antzean zetorkidan do-
ñuak, basoetako nere txiñoaren kanta ede-
rrak! Oroitz-gaua! Oroitz eta oroitz gau
guzian... Baserri txuria, ene borda, giltza-
pean beltz agertzen zitzaidan, idiak beltz,
beiak beltz, olloak beltz, anaia beltz, ko-
ñata... Zakurra bakarrik txuri. Zertan ote
zen? Ene anaiaren adiskide ote zen? Ez,
ua ene adiskide! Onegatik txuri ta eder
nere oroiketán.

Presondegi zaindariaren giltza otsare-
kin esnatu nintzan. Irribarrezka zegon ne-
re aurrean. Ongi-nai goxoa egin ondoren,
zabaldú zizkidan ateak; eta Jaungoikoari
eskerrak libre nintzala esandakoan, agur-
tu nindun.

Ene anaia berton izan omen zan. Gau
erdian. Etzuan nerekin egoteko betarik,
edo... biotzik izan.

Bizitza, zoritxarrean, bere edo beste-

ren erruz jaio diranentzako, izugarria da noski.

Ene anaia!... Baiña ba ote dut nik munduan anairik? Ez!!!

Bakarrik arkitzen naiz!!!

Bakar-bakarrik!!!

VI

Donosti! Nere erritxotik eztut ain urrut
ti uri eder au.

Bein baño geiagotan etorri izan naiz
bertora. Santo Tomasetan perira. Estropa-
detan ere bai... Baiñon, eder-ederren gaur
agertzen zait. Zergatik ote da? Gau beltza
biotzeraño, ezurretaraño sartu zaidalako
bart? Ez dakit. Alare, lilluragarri agertzen
zait.

Astiro xamar, kai aldera jo dut. Ikus-
garria noski! Besteetan ez aña. Itxasoa ta
ur-ertza, aspertu gabeko egon-ezin urdu-
rian. Itxasotiko aize me, bigun, xamurra

jolas ta jolas dabil olatuen bits txuriakin.
Auen bion maite-txeraren ezti!

Txalupak kolore askotan, beren zapi ta belak aizez beteta, balantzaka daude ur-axal urdiñean, gelditu gabe korrika, fut-boolean.

Neskatillak, ordea, apain-apain jantzita kolorezko gona laburrez, ara ta ona dabil-tza pasian, kai gañeko ibiltoki egokian. Polita, bai; Polit agertzen zait Donosti! Amets-ontzi liraiña iduri.

Ni baserritarra, emen ikusita, ez dut uste iñor arrituko danik. Donostiko kale zear baserritarrak, etxean bezelaxe, agertu izan dira noski, eta agertuko ere bai. Baña baserritartzat artuko ote naute? Nere jite ta itxura ez ote da atzerritarrena? Eta zer naiz ni gaur Donosti'n, txanponik gabe, ezagunik gabe, janarik gabe? Atzerritar gaxo, alegia.

Amarrak inguruan, «Alderdi-eder» lora-tegian usoak pikoka zulaturiko ogia jan dut. Ez dut izan besterik. Zori txarraren atzar-tean jaiok bai naigabezko bizitza! Munduak gizona atsegiñera inbitatzen du nos-

ki. Or, lorategian dabiltzan uso txuri beltzak pozaren goxoa kantari ari dira, gizonarentzat. Eta ni...

Naigabez! Oñazez! Gosez!... Denak ogia ukatzen didatela uste dut, eta ogiarekin poza. Inortxori ez diot luzatu eskurik, ogi-jabeak luzatu bear bai du...

Errukirik ez dute gizonak, ez. Ark bakar-bakarrik. Atzo, illunabarrean, edo ni kartzelan nintzan bitartean, ogi-puska au onera bota zuanak.

Bai, ogi-puska jaten ari naiz. Baña lanik izango ote dut?

Bai, ogia izango dut. Baña lana bear dut. Lan egingo dut... Baiñon nun?

Lan egingo dut. Ogia bear dut...

VII

Goxoki itzegiten didate toki guztietan. Lantegi, taller, denda ta trabena... laisterka igaro ditut lan billa. Azkenean, lan gabe, len bezela gelditu naizelako, berriz ere kai aldera jo dut; eta ementxen arkitu dut kaian, portuan, billatzen nuena, lana.

Gaur ez dut, ain zuzen ere, jornal aundirik izango. Baña nere urdallaren negarrak arindu ta ixil-aziko ditut, beintzat. Eta gaua emateko ere izango dut zerbait. Ez ote? Gero gerokoak.

Lantegiko lagunak, denak euskaldunak, ongi etorria biotz xamurkiro egin didatela

iduritu zait. Alkar-izketa ederrean sartu gera bertatik. Eta laister izan dute nere bizitzaren berri. Eta nik berena. Ongo izango gera lan bitartean. Adiskidetasunean. Bai orixe!

Iru ditut auek, Mikel, Iñigo ta Txomin. Mikel napar euskalduna. Or Prantzi-aldeko baso ta aianetan diru-mordoska irabazi ondoren, Donosti'ra etorri, andrelore batekin ezkondu, ta berton bizi dana. Iñigo, azpeitiarra. Alaia oso. Ezkongai oraindik. Azkoitiarra omen du neskatilla; an bai omen dira munduko neskatillarik politenak, eta... Bertsotan agurtu nai Iñigo'k. Txomin, donostiarra. Tripazai bildurgarria da; lana bukatu ondoren, Donosti zarreko ardoak probatu ta zurrutatzen ederki dakiana. Ezkondua, ta bi pospoliñen aita. Emazteak, berak dio, ez omen du iñoiz ere mozkortuta ikusi.

Adiskideak, Mikel, Iñigo ta Txomin, bere lanarekin gustora bizi dira: langile berriak ezte esku txarra. Gogor xamarra noski egin bear dun lana, baiñon ongi saritua. Azpeitiarrak dionez, diruaren pozak gauza guziak arintzen omen ditu.

Lana bukatzean, Mikel'ek biotz onez gela bat eskeiñi zidan bere sukaldean. Txomin, bere kontuan, -bazterrak- arakatzeko prestatu zitzaidan. Iñigo'k, berriz, ezertariko konpromisu gabe, ogei duroko bat eman zidan poltsikorako; larunbaterarte ez bait-nun kobratzerik izango. Gañera, berak lagunduko omen zidan igandean zezenetara.

Bordan langilleak biotz gaiztokoak zira-la ta abar entzuna nuen arren, azkenean ere langilleen artean biotz ona. Esan oidan guzia, beraz, ezin dezakegu ontzat eman.

VIII

Itza itz, Mikel'ek, agindu bezela, bere-nera eraman nindun. Eta bazan zerbait. Mikel-enea, etxe tiki zuria, mendi magalean ondo izkutatua dago: uriaren bildur, alegia. Aurtxoak amaren altzoan, munduaren bildur bezela.

Ezkerretik itxasoari begiratzen dio, eskubitik basoari, belardiz ta garoz apainduriko baso zabalari. «Mikel-enea» menditar da oso. Kaleko iskanbilla eztu ain urruti, baiñon garo-usaia maitego du nunbait. Aren kutsu, egitan, etzaigu aspergarri.

Tankeraz ezta aundi: sukaldea, komuna

ta iru gelatxo. Oro garbi ta txukun. Gela oietako bat etxeko andreak neretzako antolatu du poliki. Esker ona zor zaio esku ain goxoari.

Aurtxorik ez dute senar-emazteak. Eguenez itzegiteko betarik ez bait-gendukan, apal-ondoko gure alkar-izketak goxo-luzeak ziran oso. Irribarrezka, irurok, xeikoka jokatzen ginduzen txakur txikiak. Etxeko andreak «argi ibilli bearra neukala» besterik etzidan esaten. Mikel tranposo pijua bal-tzan. Galanki ematen gendun astia.

Eta, pixkaka-pixkaka, arindu egin zitzaidan biotza; ez nun naigaberik sumatzen. Bizitzari eder nerizkion, illunabarra iristean. Lan egin bear izaten nun, gogor ta nekez egin bear ere; baiña azkenengo egunotan bereziki, nagusiak ondo xamar ordaintzen zigun, eta onek gozatzen zitun gure neke-izerdi guziak. Mikel-enean, gañera, nere kabian bezelaxe sentitzen nintzan, neretarrren artean bezelaxe. Mikel egiazko adis-kide nuan. Teresa'k, etxeko andreak, begi ta arpegi onak ipintzen zizkidan.

Bai, noski. Koñatak ez bezela, Teresak

maite nindun. Geiago: biotza maite-berotuta ere ba zeukala, uste dut. Nik beartu ote nun ortara? Zer ederrik arkitu zun neregan? Dana dala, arretaz begiratuko nion... aurrerantzean.

IX

Iñigo'k ere, emandako itza beterik, zezenetara eraman nindun urrengo igandean. Aurreko egunetan, lan bitartean, jakiña, sarrri berotu zidan kasketa arako zezenak eta zezenlariak dirala-ta. Nik ez nun egundo zezenik ikusi aurretik, nere borda inguruko mendi troketan ikutika izan ezik. Ala ere, ni basatia izaki, banun zezenak ikusteko gogo ta griña bizia.

Zezen-plazara baño len, bada zarata ta iskanbilla ugari Donostiko kale, zubi ta bazterretan. Musikalariak ortik eta andik ikusi ditut jendea alaitzen, eta erri osoari zezenetara deika noski. Txiki ta nagusi, nes-

ka ta mutil, ara dioaz guziak. Musikalariak badute indarra giza-barneak piztutzeko. Auen soñu-eragiñera balantzaka bezela dabil jendea; eta nolako ole ta irrintziak botatzen dituzten denak.

Bostak jotzen eta plazan ederki eserita gengozen, patxara ederrean zezenak ikusteko asmoz. Arratsalde eguzkitsua, bero larregirik gabe. Kaio talde bat zebillen plaza gañean, egalari bizkor. Ez nindun toki txarrera ekarri nere adiskide berriak. Biotz ona du nonbait. Aurrean daukat zelai guzia; bai, toki egoki ontatik dena ikusi nezake.

Pasadobleka asi da musika bandea, Lais-ter dira zezenlariak. Or daude, or daude! Lenengo bakar-bira, «paseilloa» egiteko gertu daude ate ondoan. Asko dira, nik us-te baiño geiago. Or dago zezen-atea ere; Iñigok diostanez, ortik irtengo dute zezen beltzak. Ole ta oleka ari da jendea. Andalus biurtu ote gera euskaldunak ere? Nik ere, iñoiz olakorik egin gabea izan arren, bota dut nere **ole!** garratza.

Korrida asi da nunbait. Kezkaz samar egin dute paseilloa. Bildurraren zartada

eraman dute arpegian. Zer ote? Zezen aurrean ibiltzeko beste kemenik ez? Baiña indarra, kemena ta trebetasuna bear dira lagunak esan didan zezenak pakeratzeko.

Or, or lenengo xexen beltza! Tximista bezela atera zaigu plaza erdira. Nolako zalaparta ta apatxotsa! Ixillik plaza. Eta zezenlaria? Or atera da, ixil-ixillik. Zezena orroaka, ta bertatik, erdi erdian kapotea zabal belaun bata lurrean duala dagoan gizonari zakar ekiten dio. **Ole, ole!** oiur dagi jendeak, urduri bizitan, gizonaren egiteko arrigarria txalotuz.

Ara ta ona, oni ta ari adarka, tximista ematen du zezen beltzak. Gorputz ederra du, arnas zabala. Ezta beingoan eroriko. Oraingoan, plaza erdian agertu zaigun zaldizar bati eldu dio; gañean darama, akullu aundiarekin, giza-mamu itsusia. Zaldi ta zaldun, zezenak ederki astindu ta ifarroso ditu. Aren amorrua! Burua tente, adarrak bizi, aizea ere arrotzen dula dirudi. Erdi-erdian, baña, or zutik zezenlaria, plaza-gizona. Gizona, beti ere, abereetan nagusi.

Gaur eztu zezenak adiskiderik. Iñoiz zelaietan adiskide zun zaldia etsai biurtu zaio.

Gogor eraso dio, baiñon eztu ezer iritxi: gaiñekoaren akulluak oso odoldu du; bein eta berriz, erruki izpi gabe, sartu dio akulluaren eztena bizkar zabal gizenean, eta odolez, odol bero-gorritz busti zaio soin-axal guzia. Ikusleak ez dute au atsegin eta bota dituzte birao zatar batzuek zuzenlarien kontra.

Orain banderillak sartzea. Ederki egin du, nunbait, jendeak bizirotzen baitu. Pasadoblea ere jotzen dute musikalaria, jendearen belarriak gozaturik. Berriz eta berriz ere banderillak. Zezen gaxoa orro-iziritan dago onezkero, geldi-geldi, ibilli eziñik bezela. Oso nekatu baitute. Zezenlaria, ordea, berriz ere zezenaren aurrean, iltzea dijoanaren aurrean burlezka bezela. Nolako jolasak dabilzken! Zutik, belauniko; atzea eman ez, adar artean. Kapotea orain goi, gero lurrean; ezkerrez ta eskuiz ederki darabil.

Gero musika ta musika. Jo ta jo. Gu ere, ezin-egonez jeiki ta txaloka asi gera. Zezena ta zezenlaria goratu nai zelanbait. Gizona zezenarekin dabil oraindik ere; eskuan ditu ezpata zorrotza ta kapote gorria.

Zezena igeska bezela dabilkio, odol bero ederrez orbandua. Alare, gizonaren kapa gorria ikustean, bizi-bizi erasotzen dio. Jendea pozik.

Azkenean, erdian dago zezena, izutua. Eriotzari begira? Bai, eriotza damakion gazteari, ta ezpatari begira. Erruki eske; baiña azken erasoia zezenak egitean, zezenlariak ezpata sartu dio muturreraño. Ta erori da gaxoa lurrera, azken arnasa zurbilla emanik. Musikaz ta txaloz agurtzen dugu gartsuki.

Beste iru zezen ere plazara zituzten. Denak oso dantzalariak, baiña guziak jausi ziran, odoltuta, zezenlariaren ezpatapean. Zezenketak amaitzean, etzan zeruan ageri kaio egalaririk. Jendea, zalapartaka berriz ere kaleratu zan. Nik nere adiskideakin txuri batzuk artu nitun. Eta gero, illunduta, nere kabi berriko epeletara.

X

Teresa, etxeko andrea. Ogei ta amabost urteko emakume liraña. Gorputzez eder, ongi egiña, ongi jantzia. Arduraz zainduri-ko baratzean azi dan larrosa mardul apai-ñaren idekoa.

Irribarrezka ikusten dut goiz eta arrats. Mendiko andrea danik ezin liteke aitortu. Teresa, kaleratuko balitz, aberats kapela-dunen biotzetaraño elduko litzake. Baiñon, onezkero, Mikel'ena izango da. Alkar mai-te dute.

Teresa ez degu euskaldun, prantzitar baizik. An Prantzi aldean ezagutu omen zi-

ran, Mikel baso-lanetan zebillelarik, eta antxen ezkondu ere. Ordutik gero alkarrenak dira.

* * *

Igandea da. Mikel, diruzale amorratua, «diru gabe ezertxo ere ez omen dago» mai-xuki diona, lanera juana degu. Mezaren ajolarik ez du izan; orrek eztu kezkatzen. «Meza... Apaizak... kontu zarrak», dio maiz samar. Arduragabetuta bizi da aspaldin.

Nere biotza ere siñismenean oztutzen asia zegon. Ala ta guzti ere, oitura bai neukan, aurtzaroko oitura, ta ez nuke mezarik igande ta jaiez utziko. Bezperarik ere ez, ai izan ezkeru beintzat.

Lanak ere berdin alde batera utziko nitun, jaian irabazitako dirua deabruarentzat izan omen da-ta. Orixe zion beñik bein nere amonak, bein eta berriz, sukalde zokoan babarrunak garbitzen ari zan bitartean. Eta zarren esanak beti dute barnean egiaren ezkurra.

* * *

Sukaldean gera biok, bakarrik. Teresa bat-batean ari zait izketan: arpegia amapola bezin gorri, ta itza dardar.

•Ramon —diosta—, momentu onen bila nintzan aspaldi. Illabete batzuk daramizkizu gure etxe ontan. Maitasunez, zu zerala-ta, jantzi ditugu Mikel'ek, eta nik batez ere, etxetxo onen bazter guziak. Zu alaitu naiean, zure biotza gozatu bearrez. Ortarakoxe bai, siñistu zadazu.

•Bein baño geiagoz, illunabarra eltzean, kartetan ari geralarik, nere ezurrak dardaraz izan ditut; biotza taupadaka, bildurrez; beti kezka. Gure bizitzaren berri izango ote zendun kezka. Ezkondu gabeak gera. Or Prantzian tajutu giñan, alkartu giñan bein, eta segi aurrera egin degu. Jaungoikoagan ez degu zer aundirik siñisten. Nere ixtoria gaiñez beintzat jakin dezazun, txikitatik bakartadean bizi izan naiz, nun jaioa naizen ere ez dakitala. Eta zori txarraren atzaparpean bizi danak eztu izaten Jaungoikoarekin oroitzeko betarik. Ez, nere biotzak eztu Jainko-uste aundirik. Naigabe-tuak maiz bizi diran antzera, ni ere illun-

-altzoan bizi naiz goi-indar oietako siñis-
kizunetan.

«Neretzat Mikel izan da Jainko. Baiñon,
ara!, nola diran gauzak, ez dut maite. Go-
rrotorik ez diot onera ekarri naulako; bai-
ña ezta maitasunik ere. Nere biotza...»

Teresak negarrari eman dio oieneka,
ero aldian jausi danaren antzera.

Eta nik laztan eta laztan ari, eta laz-
tantzean badut ene baitan izkutuko indar
bat eutsi-eziña, ortara bultzatzen nauna.

XI

Igande ontan Mikel'en lana etzan astegunetakoa. Mikel zerbitzari, kamareruzan, eta alaia izan ere. Nere aragiak eta pentsamentuak itxas-aizearen goxoz preskatu nitunean, aruntza zuzendu nintzan nere oñakin.

Sukaldean gertatu zanarekin oroitzerik ez nuan nai. Teresak zertara jo nai ote zuan? Eta nik, zergatik laztandu ote nun, ia abere antzo? Ba zegon or zerbait, auspean sua lez gordetakoa.

Amaikak jo zitun «Jai-Alai»-ko erlojuak ni ara eldu nintzanean. Utsik zegon. Txuri

ta bermut-zaleak oindio oetan edo elize-
tan, alegia. Txuri jantzitako bi gizonezko,
bat Mikel, eta dozena erdi bat neska, bes-
terik etzuten ikusi sartzen nere begiak.
Len ere izandu naiz bertan, nere laneko
adiskideekin. Gaur, ordea, neskatx jende
gaztea iñoizkorik begi-bigur ta soin-lirañen
iduritu zaizkit: musu ori ta lepo gorri, egar-
bera ematen dute usakume oiek.

— Ginebra'kin bermuta —esanda, exe-
ririk gelditu nintzan.

— Neskatxa polit auetako batek zerbi-
tzia nai duk? —zion irribarrez, neskari be-
gira, Mikel'ek.

— Ez —nik legor—; ez, euk ekarri zak.
Eta, nai baduk, alkarrekin itzegingo diagu.

Nere gorputz astuna berriz ere exerto-
kira botatzen dut.

Mikel ere, bi zerbitzio ekarri ondorean,
alboan jartzen zait. Gero diosta:

— Tira, zer berri dek? Nork bultza dik
onera? Zer demontre dabilk jai-goiz? Au,
jakiña, xamurragoa egon oi dek gabaz...

Izketa aria berak asi zun, eta berak jarraitu bearko ere. Nire gibela etzegon or-tarako. Aski zun paxatutakoak ongi artzea. Nere burua etzegon prestaturik. Mikel, ber-riz, ekin eta ekin, ez neukan ixiltzerik. Ua itz bizia! Azkarra, noski. Neronek ere emango nuen zerbait itz-iturri orren orde-z.

Orain garo usaidun itza. Urrengo, ekai-tzaren itxurakoa. Gero, mendiko erreka-txoaren kanta-otsa. Berriz, biurriaren iku-tua, edo filoso-poen sakona, edo bertsola-riaren goxoa. Itza beti neretzako zuan. Bere biotza, uste dut, an mo-stradorean ba-tetik bestera, arin-arin, zebiltzan neska-txentzako zuala, an baitzitun begiak azkar bein eta berriz.

Kontu-kontari, ark beti itza ezpañetik zintzilika; bitartean, dozenerdi bat bermut garbitu nitun. Barnea bero neukan. Begiak bizi. Biotza, ordea, naigabez.

Mikel'ek ekin eta ekin, ixiltzeko beta-rik gabe. Auskalo zenbat denboran. Eta, uste dut, «Jai-Alai»-ko ixtori bakoitzak, nere biotzean zulo aundi bat zabaltzen zua-la. Leize-zuloa. Ua Mikel'en itzaren ikutu bizia! Ua giza-ixtoriaren garratza!

Onela esaten zidan, Itz-jarlio beti:

«X taller nagusia. Berreundik gora bere langilleak. Gizon eta emakume gazteak geienik. Ao-zabalak eta bildurrik ez dutenak, diotenez txakur aundi askorik ez daukana, bere langilleeri emateko beintzat. Illuntzeko amarrak ezkeroz, or agertzen omen da, esanaz: «Kaxo, neskak!» Betikoa. Eta eguneroko janari oparoa, auxe: angulak edo langosta, edo bildotsa; Prantzi'ko txanpaña ta zigarro purua, kapea ta kopa. Eta azkenean, badakik, aragia...

«X emakume ederra. Zortziretako emen izaten diagu, beste sorgin antzeko batzuekin. Gizonezkorik ez dik izaten. Diotenez, iru neskame dauzkit. Goizean amaiketan altxatu ta mezarara joaten omen dik. Bulla ta iskanbil aundirik ez dik aterako, baiñon bapo apaindu ondoren, zigarro amerikano bat ezpaiñetan ez badik, dantzan bere gorputza beste emakumeari loturik erabiltzen duana dek. Amabietan, or atarian izango dik taxista zai.

«X langilleen alde sermolari bikaña, noski, egunez. Gabaz... langilleak, gizonik bikaiñenak izanda, aberatsen oinpean bizi

gerala-ta, askatasun eske, ixillean papuak ateratzen dituana. Ez, gabaz eztira gurekin oroitzen geiago. Emen, alegia, gastatzen dizkik irabazi guziak, zurrutean eta ondo-rengoetan.

«X gu bezelakoxe langillea. Gaztea oin-diño. Aita-amak negarka sukaldean utzi ta aragiaren griñak gobernatzeko gau guzie-tan agertzen dana. Gazte izanik, arpegia zimurtua, zartua daukana.

«Aragiaren axola, besterik ez dik era-kusten. Ixtori garratzak, Ramon. Baiñon bi-zia ortarakoxe diagu, itxura danez.

«Tira, lorik artio gabe, edan zak azke-na, eta ua etxera. Siesta etzaik gaizki eto-rriko...»

XII

Orrenbeste ixtori zikiñekin naskatua neukan barnea. Ene ustez, zikin eta alu nere bordakoak ere baziran, baña mundu koxkor au biotz ustelez aseturik dago nunbait. Ez, ez nuan uste nere ondoan bizi ziranak ain itsusiak ziranik. Gosea, naigabea ta miña besterik errietan, eta gauetan gizon-emakumeak gozamenean blai bes-teen kontura. Giza-sume ezeuki ta errukarrien kontura, bai. Ai!, Jainkoaren kontura! Loi ustela, alegia, gizona. Alua, noski, mundutarra.

Berriz ere naigabeak illundu zidan biotza. Nik ez neukan ezer, eta gau-txori

aiek!... Ez ote ziran ero? Ez, eroa ni, ga-berarte an gelditzen ez nintzalako. Ez nun gorputzari atsegiñik ematerik izango, ortarako ez bait-neukan biotzik ez txanponik.

Barneak auxe eskatu izan dit, itzez: «Zaude emen, Ramon, eta garbitu itzazu guziak gozorik gozoenean arkitzen diranean. Munduari mesede egingo diozu».

Erotasunak joa nengon, alegia. Baña, Jauna!, eroak asko beintzat, ez ote ditugu olako bidegabekerien seme?

Agurtu nuan adiskidea; eta balantzaka, —oñetan indarrik ez bait nuan— balantzaka, kai aldera eman nion.

Emen bakardadean izanduko nintzan. Itxas urarekin ameslari. Mendietako berdetasunean atseginduko nitun begiak. Nere biotza atsekabez gañezka... Lagunik gabe... Norantza zuzendu? Itxas ertzeko etxe txurian, negar-intziriz, eneganako maitasun-berotan gelditu zan bat. Teresa'ren biotzak maite nindun. Ez nengoan, beraz, oso bakarrik.

**BIGARREN
ZATIA**

I

Goiz ederra argitu zan arren, eguerdirako laño maltzo narrasak ageri ziran zeru azpian. Etxe aurreko zugazetan txoriak etzuten, lenago bezela, txinta goxorik kantatzen.

Teresa urduri ibilli zan goiz guzian. Eguerdiz, ordea, alperrik egon zan Ramonen zai, orain sukaldean, orain leio er-tzean.

Ramon etzan etxeratu. Mikel'ek ere, jolas-etxetik atera ondoren, oro galduak zitun bere bideak; telefonoz deitu zion Teresari, baña etzion Ramon'en berririk eman, tautik ere ez: ezta an izandu zanik ere.

— Nundik nora ote dut?

Begi zuloetan agertu zitzaion malkoari ezin zion eutsi. Iturrian poliki jaioriko malko lodia kazkar, saltoka, erortzen zitzaizkion altzoan. A!, malko aien orde z bere Ramon balu!... Etzekian zergatik soltatu zion ain laster bere itz beroa, maitasun labean beroturiko itza. Itz goxoa, bai, baña azkarregi esana noski.

Alare sutan zeuzkan barneak, eta barneak sutan diranean, ezin eldu naita ere, saiatu ta ere, txinpartari. Eta orixe, orixe Teresa'ren itza goizean, Ramon'en aurrean. Txinparta! Txinparta!

Arpegian oñazea pintatuta zuala, lendarbizikoz, bere baserritar jantzi ta jitarekin ikusi zuanetik, maite-miñez zeukan biotza. Ua zan ua Prantzi'n amets egindako mutil jatorra! Osasuntsua! Bikaña!

Askoren berri dut. Bañon gau illunean trumoi otsarekin batera, nerean sartu zanean bezin azkar, gozatu zitzaion biotza, ta aragia. Betarik galdu gabe lagun nion...

A!, Ramon ezta oroitzen bear bada. Ni

bai, eta ederki oroitu ere. Nola ez? Ez, ez, bururik eztut galdu oraindiño. Ziur nago; bera da. Naigabez agertu zitzaidan. Goxo ta griña bizitan laztandu nindun.

Gero, lotsaz ikusi nun, masaillak gorri-gorri zitularik. Azkenez joan zan etxetik, nere ondotik. Nora jo ote zun? Ez dakit. Bere jantzi-paketea emen utzi zun, aitzuta alegia. Etorriko al da billa.

Teresak, onelako pentsamentuetan murgildua, negarrez igaro zuan igande guzia.

II

Mikel guztiz berandu etxeratu zan. Ramon'en gelara begiratzeko oiturarik etzeukan eta, zuzenean gelan sartu, galtzak, jaketa ta oñetakoak lurrean utzi ta oeratu zan. Teresa lo zegon. Mikel'ek ere, oso nekatua etorri baita, loari eman dio bertatik.

Urrengo goizean goiz, «egun on» esateko ere betarik artu gabe, Teresak dio-tsa:

— Mikel, Ramon ez duk etorri. Zerbait gerta zaiok, noski. Egun guzian itxoiten egon nauk. Kezkaz, naigabez, etxeko bat

det. Zer gerta ote zaiok gure adiskideari?
Zer, Mikel? —Dardaraz zeukan gorputza.

— Bai, raru xamarra billatu niñan atzo goizean. Jolas tokian ikusi niñan.

— Zer diok? Ura jolas tokian? Etzuan orraitio neska billa juango!

— Ez, Tere. Nere iritziz ezten aragi-zale. Mutilzar amorratua den. Bermutean aitu ondoren, eskerrik eman gabe ta ordaindu gabe, juan unan. Ero balitz...

— Ez diat deusik konprenitzen.

— Tira, Tere, ez gaitezen geiegi larritu. Etortzeko baldin bada, ongi; ta, etortzeko ez baldin bada ere, ongi izango gaitun. Eta ekarri zan gosaria, luzatu gabe. Ekarri zan, bai, kafe beltza ugari, bero-bero, katillu txurian.

Mikel'ek, bitartean, egunerokoa irakurtzen du, **Hoja de Lunes**. Betiko ipui ta kontuak. Errusia dala ta eztala, De Gaulle'k ezezkoa eman diola Ingalaterra'ri. Berlin'en orma zar bat altxatu duela, ta andik ona ta emendik ara pasatzerik iñork ere eztu.

la. Donosti futbolean berdin gelditu dala. Tapia'k pelota jolasean larri ibilli duala etsaia. Afrika'ko beltzak askatasun zale agertzen dirala... Betiko ixtoriak. Bañon, irakurri arte, irakur-orria begietan.

Kafe beroa artu ondoren, Mikel ba di-joa. Atetik:

— Teresa, gure Ramon agertzen baldin bada, ardurata negon ez nadin, abisatu. Agur!

III

Astelengoiza ere argitu zan. Eta Teresa etzan sukaldeko: biotzak kanpora bultz-eragiten zion. Kopeta, berriz, kiskaltzen zeukan. Eta zutik, geldirik egoteko etzitun oñak; naiz ta naiez ibilli egin bear: gelditu: orduko, dardarka asten zitzaizkion bel-
launak aurrenik eta gorputz guzia ondoren.

Nolanai ere Ramon billatu bear zun. Bera topatu artean eztu pakerik izango. Bai, egia: Teresak eztauka etxean egotetik. Derriorrekoa du noski kalera atera ta or-emen ura billatzea. Ortarako ibilli, alde batetik bestera ibilli; eta ongi begiratu bazterretan. Eta galde egin ari ta oni.

Auxe esango die gizonei ta emaku-

meei: «Ogeta amar urteko mutilla galdu dut. Liraña, ille kixkurra, begi garbia. Esan zaidazute ikusi dezuten».

Gero, kaira juango zan, ea lanari eman dion.

Bañon, Teresak alperrik galdu ditu goizeko orduak. Eztu arkitu kaleetan Ramon'en aztarrenik. Astelena izanda ere, Donostia'ko kaleak jendez aseta daude. Goiz-goizetik or dabilta gizonak, naigabearekin oroi-tu gabe, trabenatan; baita emakumeak eskaparate-ikusketan ere. Aiek eta auek irri-barrezka. Ramon danik ere kontuan erori gabe. Teresa'ren kezka ta barne-miñez oartu gabe.

Orlako asko ditugu munduan, eta ezta arritzekoa. Gizon eta emakume, biotz asko dabilzki gure inguruan kezka, urduriak, ezin-egonak eta larritasunak jota. Ez diogu, alare, jaramonik egiten.

Asper-asper eginda etxeratu zan Teresa.

Biotza, puntxeraño, arantzaz josia sentitzen du.

IV

Iñigo zan izlari lan denboran.

— Arrigarria da, noski —zion—; beltza egin ziguk Ramon'ek; langille zintzoa gendun bera. Ainbat astez, goizetan, gu etortzerako, emen zan. Iñoiz edo iñoiz, beranduxeago laneratzen ba zekian. Bañon gaurkoa beltza, orraitio... Amarrak eta arrastorik ez. Mikel, itz egiguk: etxean dek mozkorrean, ala bota egin dek andik?

Mikel'ek eztu mingañik askatu; ao-sapaiari josirik daukala dirudi. Itz egin naiez asi arren, motelki atzeratzen zaizkio itzak. Bizitasunik eztu barnean; ezta ezertarako gauza.

— Tira, Mikel, esnatu adi. Ordua badek eta. Emen ari gaituk Txomin eta ni lan-lagunen lanak egiten. I, erdi lotan! Eta Ramon, auskalo nork ostu digun. Eta, Mikel, ba al dakik nundi nora dabillen gure adiskidea, edo zer demoniok jan duen?

Alare, etzegon Mikel beretik ateratzerik. Bere zerean, ajolarik gabe ta patxara ezean, itxas ontzia ikatzez betetzen ari zan.

Iñigo ordea berritsu. Zirikalari altxa baitzan oetik, etzegon ain errez ixiltzeko; etzan, garai artan beintzat, ua asper-erazteko mutillik. Eta, alajaiño!, Mikel'ek itzik ere ez. Bata mutua, bestea itzontzi. Katua egon bear, orraitio, Mikel'en aoan, edo gibelean, edo estietan izkutaturik. Iñigo'k ateratzeko dio, andik edo emendik, dalako katu ori.

— Mikel, nerekin ez duk bromarik; biotza jakin-miñez diat, eta nai ori bete arte ez duk izango etxeratzerik. Mintzo, mintzo, Mikel!

Azkeneko au oiuka ta indarrez bota zion arpegira. Itxasoa ere gero ta biziago

zegan, aren jakin-miñaren antzera. Gero, bigun-goxoago noski, lepo ondotik elduaz:

— Tira, Mikel, esaidak nundik nora degun Ramon.

Ixillik jarraitzerik ez dauka-ta, Mikel'ek itzari eman dio. Asieran motel, biziago gero: barneari sua ematen ari dala dirudi, aldapa beera dijoan bultzia bezela.

— Nik dakidana auxe besterik ez dezute. Atzo amaikak inguruan azaldu zan Jolas-etxe barnean. Illun billatu nian, naigabez oso eroria. Oroitz beltzakin jolasean edo. Alkarrekin, bazterretan exerita egondu itxian, gure eztarriak bermutez bertzen. Gero, agurtu gabe, ordaindu gabe, joan zan. Pitin batean, leiotik segitu nioztan begiz, baña kalean zear bereala galdu nitxian bere oñak. Naigabearen zigorpen zala zirudian, edo burua zerbait ondatuta.

— Eta zer dio Teresak?

— Teresak? Ene emazteak etxeko dik Ramon. Eta gaur, esnatu-ala kontatu zizkak bere ardura ta kezka. Egun guzian ez omen uan etxeratu. Ez bazkaltzera, ez gaua pasatzera. Or nik dakidana.

V

Txomin'ek gaur egun osoa ametsetan igaro du. Eskerrak inguruetan nagusirik ez dan azaldu. Etzun mogimentu aundirik gorputzean. Lana? Lana bestientzako dek. Lana baño obe afaria ederra. Barnean, bere baitan izketa polita zerbillen. Ametsetan...

Gaur adiskide zaar paltarik ez duk izango —zion bere kolkorako—. «Roxendo», mediku zaarra; osagille jatorra noski. Gaztaroan gure Donosti aldeko borda ta base-rietan makiña bat amona ta aitona osatutakoa. Orraitio gure euskal erriko amonen eta aitonen aotik entzundako sorgin-ixtori txiki, bizi, bildurgarriak kontatu bearko dizkit.

«Manu», itxas gizona. Arrantzaleen artean gizonik leialena. Arrai tartean urterik onenak joan zaizkio, bañon oindiokan ere, gure itxas ertzetako errietan gutxi dira ari atunetan edo sardiñetan edo bixigutan irabaziko liokenik. Jatorra gure Manu arrantzalea.

«Joxe Martin», nekazaria, baserritarra. Berealaxe ekingo dio onek kantari. Bertso zaarretan ongi bai ongi. Txirritan eta Bilintxen eta Pedro Mariren bertsoak orain goxo, orain garratz, mendiko iturriak ura bezelaxe aterako zaizkio. Gero, eztarria naiko ardoakin busti ondoren, bertso berriak... aldrebes, erdi-ipurdika, mediku zaarra zirikatuz.

Eta «Nikaxio»... «Praixko»... «Anixeto»... Alkartasun onean, umore ederrean, «juju ta ajaja, a zer txipiro-jana egin bear degun. Joxepantoni yaioa, makiña bat «kontxo-kontxo» esan bearrez diagu. «Kontxo-kontxo, Nikaxio, sabel itsusi aundi ori ez dek ase oindiño? Kantabriko txipiro guziak garbitu bear dituk». Ta Nikaxio, muturra beltzituta, algaraka, «Tira, Joxepantoni polit ori, atoz onera, nik emango dizut ogi

pusketa txapiro saltza beltzean bustita...»
esanaz.

Orlako askorik eztiagu egin aspaldi onetan, bañon, ze demontre, noiz edo bein bizitza alaitu egin bear dek. Txapiroiak ez dituk itxasoak dotoretzeko egiñak, sabela, tripa gozatzeko baizik. Saintxo ederra!

Egunaren orduak bertatik pasatu zaizkio. Burua amets eta amets. Aoa txistu goxoz. Begiak argi, lanerako ez ordea. Naiago zuan, gaur begiak xuelto utzi, batez ere udaberriz jantzitako neskatxen bat edo beste pasatzen zanian kai aldera. Lana, berak gaur dionez —bestetan ez baitu aostasapain orlako esanik— lana tontoentzako.

Alare, biotz mamian naigabeak aizkura egiten dio. Eta egin bein eta berriz. Saiatu da, alegia, biotza gozitzen; bañon alperrik. Biotzean oñazea.

«Ez dizu ajolik, biotz. Ramonen paltan ere gozatuko zera afarian». Ala ta guzti, Ramonek zeukan kezkatu, ezpaizekin nundik nora zan, ezta zein zan ere. Kai aldean adiskide zaarren bateri galdetzen baldin bazion, berealaxe zeukan belarrian erantzu-

na: «Ua, Ramon, baserritar izenekoa. Ua, Santagedara eraman omen dute». «Ramon, kaiko langille ua, etzekit nik aren berririk, baña kartzelan omen ziok». «Ramonen galdezka ator? Gizon eralle bat omen uan ta Prantzi aldera iges omen dik».

Gauza garbirik ez beintzat. Gañera guziak Ramonen izena zikindu naian agertzen zitzaizkion: «Gizon erallea», «eroa»... Zer ote zan? Dana dala, maite nun, ongi ta jator jokatu bai zun lanean eta ere bai nerekin; eta afaltzean, nere adiskide onen palta sentitu bear dit. Onela esaten zun barnean.

Iñigo'gatik bost ajola ta erdi. Ezkondu ezkeroztik, etxekoi egiña da: lana bukatu bezin azkar da etxeratzen. «Gau txoriak beltzak omen dira —diotsa— sermolari Loiola'ko Santuaren antzera». —«Beltzak, txipiroien larru ta saltza dituk beltzak», diotsa bestetik.

Gañera etzaio ezertxo ere atsegin Iñigo'ren alkar izketa. Iñigok, Azpeiti ez darian, Azkoiti darabil aoan; xexena ezarrarian, adarra... Eta Txomin'entzako ez xexenik eta ez adarrik. Txominentzako pelo-

tariak. Ua gauza ikusgarria! «Bi pareta ta pelota sarean». Txomin'entzako ez Azpeitirik ez Azkoitirik. Donosti! Eta Donostin parte zaarreko ardotegiak, eta sagardotegiak. Sagardo oria basoan eta sardiña zaarra platerean... Eta jan-nai bizia sabelean...

«Biar arte, edo etzi arte» esanaz, banandu dira. Txomin'ek pitin bat urrutiratu orduko, oiuka esan dio:

«I, azpeitiar alu,
xexenak arrapatzen bazaitu,
jo ta bertan ilko zaitu».

Eta azpeitiarrak:

«I, donostiar tripazai aundia,
i ere ez aiz an zeruan izango
eta oitu ari beltzerako».

Txominek, etxean, jantzi zikiñak kendu ta berriak, garbiak jantzi ditu. Korbatea ere bai; bere emazteak egin dio korapilloa, ta dotore egin ere.

Irribarrezka ateratzen da atarira. Txipiro usaiak arindu dizkiola oñak eta esanak, pentsatu du kalean.

VI

Teresak bere aldez etzun barren onik. Ordu beltzak, naigabetsuak beretzat. Min-
-oñaze artean ongi oitua du erraia, bañon
etzun oraindik maite-miñaren berri esate-
korik. Prantzin, bere sorterrian zala, Mikel,
euskal langille jatorrari eskeiñi zion bio-
tza. Berak pekatu zer zan ez ba zekin ere,
pekatuaren alaba zan. Lupetz artean jaio ta
azia. Sasiak ekarria. Eta, jakiña, sasiak ori-
xe: arantza ta miña.

Neska koskorretan, orla igaro zitun egu-
nak eta gauak. Beti penetan: bere biotzak
argia, kalea, askatasuna besterik ez bai
zun amets. Amalau urtez atera zan. Ate

bearrik etzun izan. Orma ganetik salto, ta askatasuna. Askatasuna! Guziok barnean darabilgun egarria.

Bai, egarritan dauka biotza. Zer edari klase bear ote du barruan sumatzen dun griña itotzeko? Ez daki ziurki. Baña egarri da. Biotzean du, batez ere, egarriak indar.

Eta gizonak beingoan eskeñiko dio «ura», barnea oso asetzeko. Bai ote? Lizun-tokian izango du, aurrerantzean, bizi-tegi. Baña ari izkutukoa baita, arantzartekoa, arantzak ditu nainungo zokotan eta batez ere biotzeko mamietan. Egarritan dauka biotza, eta atsegiñak ere eztio aitzu-erazten bere jaiotz-lekuaren garratzasuna. Arantza ta sasia, eztu besterik munduan ikusten.

Lizun-etxean ezagutu zun bere Mikel. Eta Mikel au, naizta jatorri onekoa izan, siñismenean eta oitura garbitan zearo jota zegon etxetik kanpora. Etzitzaion ajolik ezergatik ere: ez otoitzak, ez elizak eztio jaramonik egiten. Berezko lotsa ere galdua du, ta debekaturiko barrutiz ibilliagatik, etzaizkio masaillak geiegi gorritzen.

Orlako ibillera batean ezagutu zun Mikel'ek Teresa. Etzun asko bear izan bereganatzeko: itzerditxo bat aski. Illabetean mendian izandu zan, lapikoa ta txabola preparatzeko aitzakiz eramanda. Elizarik etzegon inguruetan; izanda ere, berdin izango zitzaien. Aiztuta, edo ortarako betarik ez. Teresak, Jainkoarekiko gauza gutxi ezagutzen zun. Mikel, berriz, txanponera ta lizunera emana zan aspaldin.

Mikel'ek, zegozkion diruak jaso zituanean, Donosti'runtz jo zuten biak, eta emen bizi ziran, ezkonduak ba liran... Teresari azitu egin zitzaion Prantzi'n bere izena etxe galduko zerrendatik kentzea. Onegatik, noizean bein, dei egin oi zioten ango etxeetatik. Eta Mikel, izutua, oindiño egarri bai zun biotza, kezkaz betea ibilli oi zan.

VII

Biotzaren aldaketa bizkorrak. Mikel ga-xoa! Gorrotoak jaten zion aspaldin biotza. Gau ta egun zerbait zeukan ortzaka gibe-lean, sabelean, ezurretan, begietan eta ez-tarrian. Malditzioa besterik etzizaion ate-ratzen. Ua, ua zan gaizki ta garratz bizi-tzea! Itxura zanez, burla ta ixeka egiten zion bizitzak. Pakea galdu du Teresak ere, eta bien artean etzan azken-asteetan atse-gintasun aundirik. Ramon ezkutatu zanetik bereziki eztio iñoiz atsegiñik eman nai. Ezezkoa darabil aoan azkar. Malkoa be-gietan.

— Ez, ez! Etzaitut nere. Ez gorputz, ez

biotz, ez naiz zuretako. Ramon, Ramon dut maite —esan oi zion sarritan.

Mikel'ek orduan, barneko suak berotuta, altxatzen zitun eta maiz altxatu ere eskuak zerurantz, Jainkoa ta Ramon mada-rikatzeko. Gau aldian, bein baño sarriago, biraoka, illunari illuna eman ondoren, eroturik, itsumustuan eldu izan dio Teresari ta esnatu. Illunak ordun ekaitz usaia, illunpean sorgin dantza: Teresa ta Mikel, erotxoro, alkarri sekulakoak esaten, atertu gabe.

Mikel'ek: «Ene Teresa, osoan galdu dezula lotsa: ni nazu zure edo nik zaitut nere», zion ezpainañak bits-patsetan zitula.

Eta Teresak onela: «Oa, oa etsaiarekin; ez duk izango nere ezer. Ramon, Ramon!, nundik aiz?»

Illunak, gau sorginaarekin, beti ere Teresaren azken itzak kantatzen zituala iduritzen zitzaion Mikel'i. «Ramon, Ramon!, nundik aiz?»

Gaur gabean, ala ere, etzegon Mikel,

besteetan bezela, blisti-blasta batzuekin pakeak egiteko.

Egunez etzan laneratu. Barneak etzion agintzen lanik, eta gogo gabe... Gorrotoari eusten naikoa lan zebillen atzenengo egunetan. Ai, Ramon an balu, lanean, itxas-ontzian, laister akabatuko luke alegia. Arraiak egiaz janaria izango lukete. Bañon Ramon etsaiak edo inpernuak jan dutela dirudi. Ezta iñun agertzen, adiskideak ere ez dute aren berririk. Teresa ta Ramon alkar arturik izango dira noski baño noskiago; eta gauzak ongi edo gaizki arreglatzeko garaia eldu dala pentsatuaz esnatu da, edo oetik jaiki, lorik ezpaitu izan begietan.

Kanpora irtenik, ameslari igaro du eguna Jaizkibel'ko piñadietan, itxasoari begira. Lañoz zegon au oso-osoa: urik ez txaluparik etzuten begiak. Belarrietara, ordea, itxasoko kresala zetorkion burruka gordiñean latz. Ertzeko arkaitzekin burruka bizia, luzea, bukaera gabekoa zebillen: lenbizi beti ura, olatua zan arkaitz joka, gogor; gero arriak ziran olatuari segituz, adarra joaz bezela. Baña Mikel itxasoarekin etzan amets, bere bizitzarekin baizik.

Jaizkibel'en muturra jotzean, begi biak saltatu naiean bezela, aruntz, Naparra'runtz, bere erriruntz joan zitzaizkio.

«Naparroa! Naparro bedeinkatua! —oiu dagi—. Ez, etzaitut maite. Seme nauzu, egia; gurasoak or mendi arro, eder oien magalean dute kabia, txoriak zugatzetan bezela, eta ni orko xorikume. Noski! Bañon, gurasoak! Kabirik ez xoriak orruntz joateko. Or ditut bi anai Ameriketara joanak; ez dut griñarik; artzai izango dira, noski, zelaietan edo basoetan. Kaxinto ta Tomas, xoririk gazteenak gure kabian. Gero ni gazteen... Mikel, nere izenez, Mikel, Aralar'ko Aingeruaren izena. Berriz ere otoitza datorkit ao-sapaira. San Migel Aralar'koa, zaindu Euskal-Erria! Bañon ez, ez-tut federik. Eztut edukitzerik nai. Neretzako Teresa...»

Itxas-lañoak ortzeraño joan dira, Mikel amets eta amets ari dan bitartean. Piñu-puntxan kukuak, ur azalez doan untziari begira, kuku ta kuku dio eztarri ozen.

Mikel ezta esnatu. Aurreneko ametsari ari ematen diardu.

«Lenbiziko xoriarentzat —jarraitzen du— izandu zan kabia. Antxen, etxe txurian bi-zi da. Ongi. Ogiarekin. Ezkongai atera nintzan Prantzi'ra. Orain amabost urte. Eztut arrezkero Etxe-Txuri'ko ogirik jan. Etxe-Txuri'ko txakurrak eztu zaunkarik izan ni naizela-ta. Gurasoak kanpo santuan ditud. Illeta-egunean nere palta sentiduko zuten, noski. Bañon ni Teresa'rena nintzan; momentu guztiak Teresa'renak nitun. Teresa, emakume liraiña!»

Kukuak ametsa Mikel'i, itz biurtu baitzaio, igesari eman dio. Zeru-ertzak janak ditu lañoak, eta orain zabal agertzen da itxasoa, Mikel'en begipean. Olatu tarteka egan dabilta kaio ega-luzeak. Txalupak ere txipirotara atera dira; eta, or, or nun dijoan itxasontzi aundia, kee beltza tximinin, Pasai alderuntz. Mikel'ek ere kee beltza dauko barnean; garratzuz dijoakio gibela.

«Prantzin, Teresa nere egiteko, dena utzi nun: eliza, siñismena, otoitza. Eta orain, orain... Teresa, nere Teresa, bai nere Teresa, Jainkoaren ordez erositakoa, Ramonentzat... Madarikatua! Laister...»

«Laister» itzakin esnatu da guziz. Es-
ku-muturrean zazpiterdik. Etxeruntz, Do-
nosti'runtz joateko ordu polita.

«Laister» itza ametsak ongi josi diola
dirudi biotzean. Lendik zun sua; bañon
«laister» onek geio indartu dio.

VIII

Teresa antxen zegon, sukaldean. Iñoiz baño dotorego, apain jantzia. Larrosa gorria bere txorten gañean. Beingoz iriki da atea.

— Gabon! —Mikel'ek, sartzean.

— Gabon! —erantzun dio Teresak, otz.

Mikel'ek giltzakin itxi du atea. Atean, ate-zuloak auxe kantatzen diola, garratz, pentsatu du: «Laister... laister...»

Bai, laister... Apaltzean tajutu bearko ditugu gauzak. Gero ez tet atzo lako blisti-blastarik nai; ezezkorik eztu ene biotzak artu nai.

— Teresa, utzi zan afaria, ta ator onera.

Teresari belaunak dardaraztu zaizkio.

— Teresa, ik ba dakin, ongi jakin ere, nere biotzak maite aunala. Lendabiziko egunetik nere biotza iretako kabi goxo biurtu niñan. Ene ametsik xamurrenak eta goxoenak igan. Gauza oro utzi dizkiñat, i aizela-ta: Jainkoa, fedea, Euskal-Erriko oitura garbiak. Ene gurasoak naigabez il dizkiñat, irekin ezkondu gabe bizi izan naizelako. Ene anaiak lotsaz bizi ditun, irekin Euskal-Erriko erririk ederrenean bizi naizelako. Dena utzi diñat irekin, Teresa maite, Teresa, irekin gau ta egun izatearren. Eta orain...

Mikel altxatu da. Eta, altxatzean, aulkia erori zaio zarataz. Teresa geldirik.

— Teresa, Teresa!

IX

Emen, nun ditudan ark gau eder artan utzitako gauzak. Umetxoa balitz bezelaxe, lotsaz gorri-gorri, joan zan, azkar joan ere. Orduantxe iduritu zitzaidan eder, orduantxe...

Oiu nik, baña biotzak zion: «Ez dion, neska, oiurik egin. Orla, berriz ere, aitzaki ontan etorriko den».

Bañon etzan agertu. Amets eta amets ibilliko nintzan gizon urarekin. Ua... Eta, egun batean, or nun ekartzen didan nere mutilla Mikel'ek. Begiak ñirñir ta gorputza dardar begiratu nion. Biotzak bertatik esaten zidan: «Or, Teresa, or nun zure mai-tea».

Baña maiterik ez tut. Txoria bai litza, igesari eman dio. Noruntz, nere, noruntz jo dezu?

Emen bere gauzak. Emen galtzak, bat, bi, iru, mendiko usaidunak. Emen barrukoak, bat, bi, iru, lau, bost, sei kaltzontxillo txuri... Eta traje berri-berria, jostunaren esku-usaiarekin, jostorrazetik arakoa. Ede-rra ez ote? Nere maitearen gorputza esaltzen duna, noski.

Baña, ene Ramon, noruntz ote dijoa, egunez ta gabez bide zuzen barik? Nork puskatu dit biotza? A!, zoritxarrekoa ni! Sasi-arantzak ditut biotzean ozka ta ozka. Alare, sasikoari saria; simaurretan jaiotakoari, simaurra. Eztu besterik merezi.

Zergatik azaldu ta erakutsi ote nion nere griña? Ramoni ala itz-egiteko, nork zirikatu ote zidan mingaña? Begiz ta gogoz ari nengoan; ari begira igarotzen nitun orduak. Ametsetan ua zan nere, ez Mikel. Janari goxoa zan lapikoan eta zartaian, sutan Ramon'entzako ongi egosia edo errea. Beti ni ura pozik edukitzeko prest.

Ramon!, Ramon! Emen zure pardela...

**IRUGARREN
ZATIA**

I

Errekaldean goruntz zijoan. Ur garbian, urpeko arrietan bere soña erretratu bezela utzirik, beti goruntz. Nekez. Miñez. Oroitez. Bere biotzeko oñazea errekarari pegatzen ziola zirudin. Negarka zeramazkin errekarak bere urak, arkaitzetan ongi astindutako urak, itxasora.

Negar-erreka! Onelaxe deitzen zioten bizitzari euskaldun zaarrak. Eta orixe zan, noski, bere bizitza. Borda utzi ondoren bere biotzean, malkoak indartuta, sasia zorrotz sortzen zan. Iñoiz edo iñoiz baratza ontan, sasi tartean, zerbait loretu ote ziztaion pentsa izan du, bañon berealaxe zan

ekaitzpean. Malkoak bere zera omen du, barnea ximurtzeko. Bazterrak erretzeko or-lako ego-aizerik ez, alegia.

Ramonek naigabez zitun erraiak, Naigabez ezurrak. Naigabez begiak. Naigabez... naigabez... Kanpotik alare giro goxoa zan. Eguzkiak, sorginkeriz, printzak igeri zeuzkan errekan, ertzeko sasi-belarretan. Aizeak, berriz eta berriz, laztantzen ditu maitasunez, zelaietan, belarrak eta lorak. Lais-ter ipintzen bai ditu ere bere tokian, aizearen jun-etorri bakoitzean. Ramoni illeak, kopetan beera, begietara datozkio.

Autsa, bide-itxurreko autsa eder zaio. Zapaltzean, oin-azpitik, ezurretan gora atsegiña datorkiola dirudi, biotzeko arantzatarraño, malkotarraño. Biotz-arantza ta mal-koen ezkutua!

Or-emen, bide ezkiñetan, zelai magale-tan, eguzkitan kirkirrak kanta zale daude. Txikia, aurtxoa izanik, atsegin zitzaion kirker kanta, borda inguruko zelaiko kirker kanta. Bañon orain... Ramon, erreka aldean beti, goruntz naigabez dijoa.

Trumoiak gogor, garratz joko baluke,

bere biotza zerbait poztuko litzakela pentsatzen du. Tximistak bere biotz illuna argituko lukeala.

Autsa zapaltzean bakarrik sentitzen du poza oñetan. Ur garbiak, arrietan, negarka ikustean bakarrik gozo biotza.

Erreka agurtu du. Orain gozo berrietan da: arbolapean, aritzpean. Beti goruntz. Atsedetik artu gabe. Itzalpean, beti goruntz.

Bereala adiskidetu dira bi itzalak, gizon itzala ta arbola itzala. Orixe iduritzen zaio: bera ere itzal beltza dala, gizon itzala. Eta bera, arbolapetan itzal pasatzean, oro izuririk, txoriak, zozoak, txepetxak... igesari ematen ziela. Kabietan arrautzak otzik utzita.

Ramon berak ere otzik zeuzkan biotzeko mamiak. Biotz-kabia arantzaz jositako zotzekin egiña, noski.

Bide bazterretan, ostro tartetik, arbolapetan, sartutako eguzkitan, subeak ikusi dute. Muskerrak, sasi ondotik, begiratu diote, eta Ramon urrutiratzean, itxi berriz

ere begiak, loa eguzkitan patxadaz egin naian.

Txintxerri joka dabilta nun-nai ardiak, arkumetxoak errapetan ondo pozik dituztela.

Mendiari muturra artu dio. Mendiaren itzalean bostak irakurtzen ditu. Arbolarik ez muñoan. Garbi dena. Oro zelai. Zerua zelaiago. Garbiago. Ortz-egal batetik besteraño lañorik ez. Eder ta zoragarri, noski, zeruaren azpikalde zabala.

Mendiak badu zerbait, erriak, kaleak ez duana: pakea. Muturra jo ezkerre, gañera, aizea ixtoriz beteta oso. Urteetan or dabil-tzu goietan (lañoetan) eta beetan (kaleetan). Orain gogor, gero bigun. Beti or-emengo kontu zaar edo berriak oro ikasiz.

Ortxen exeriko da Ramon. Mutur-muturrean. Aralar aldera begira. Begiak, noizean bein, beruntz iges egiten diete, errekaruntz. Bañon erreka arkaitz tartean izkutatuta dijoa. Arbolarapetan. Arbola besterik ezta ageri azpian. Eta arbolatik lurrera, lurretik arbolarara, txortxarka, bere kumentzat janari billa, zozo beltzak moko oriarekin. Eta bere

ondoan... itzala, bere itzal itsusia, arkaitzetan zearo puskatuta...

Itzalak eztio paketan uzten. Goi-goiraño jarraitu dio. Errekako ur garbian. Sasietan. Arkaitzetan. Bide-itxurretan... Itzala! Aurreko mendiak, Txindoki arroak ere itzala dauka. Itzala! Begietatik sortu zaion malko tanta ere, itzal aundia egiñik, arkaitzera erori zaio, arkaitzean puskatuta daukan bere itzalera.

Itzala txikituta dauka. Malkoz bustita. Aizeak, geroago ta indar aundiagoarekin astintzen ditu Ramonen illeak, mendi mutur-muturrean.

II

Euskalerrri! Euskalerrri gogor!

Euskalerrri! Euskalerrri ezilkor!

Mendi muño ontatik ongi ikusten zaitut. Zangar ta lirain zera, noski. Oso zoragarria! Itxasoa dezu ertzean, eta gizonik sendoenak or dituzu txalupetan. Gau ta egun arrantzuan. Ekaitzetan zutik... Goizeko izarra kantatuz... Itxasoa muga dezu, ene Euskalerrri!

Beste aldetik, berriz, zure azken mendiak. Mendi galantak. An Txindoki, zorrotz-zorrotz sartzen da airetan, lañotan, goietako xorieri euskal bertsozik gartsuenak

kantaturik. An Gorbea, Bizkai ta Araba lotuz: gurutzea, burnizko gurutzea dezu mutur eta tontor. Euskal lurreko mendien sa-beletik ateratako burnia bai-dezu zuk, gurutz santua! Gorbea'ko gurutzea! zuk eutsitzen diozu inguruari euskaldun, euskera zale. Segi zazu, beti atsegingarri ta zintzoa.

An Urko... An Udala... Aitzez egiñak, alegia; Bizkai ta Gipuzku, alkar loturik zaudete azpitik eta goitik. Urko ta Udala! Maitte miñez egiñak, noski. Biok magalean bai dauzkatzute Bizkai-Gipuzkoak.

An Aitz-gorri. Ortzean, jaiο berri dan laño txuria dauka txapel. Sorgin dantzean ditula dirudi goi-goiko aitzak. Origatik da Aitz gorri. Eta Aitz-gorri degu jaun, mendietan, euskaldunok. Urte zarretan, ortxen, aitz gorritan, saltoka, orroaz basa-urdeak eta otsoak. Lenbiziko euskaldunak, nere aitona-amonen aitona-amonak, zure arkaitz zuloetan igaroko zituzten —oi Aitz-gorri!— beren gau luzeak. Aitz-gorri!

An, lañoa sartu baita, mugako mendiak!, ezin zaitzuet ikusi. Baiñon ede-

rrean, mendiok bezin eder; bai, Urko, Uda-
la, Gorbea, Aitz-gorri bezin lirain zerate.

Mendiak dituzu muga, Euskalerrri! Eus-
kalerrri! Itxasoa dezu azken!

Or gure basoak. Zure lurra zikinduz.
Ogeigarren gizaldiko euskaldunak, semeak!,
piñua ugaritu dute bazterretan. Zaarrak or-
lakorik etzuten egingo noski. Noski! Ra-
mon, or, ondio, gure ta zure pagadi argiak.
Ostroa berde, adarra lirain. Itzal goxo de-
gu pago lodia. Or aritzak ere, luze, garo
tarteon, belarrean, erreka ertzean. Pago
ta aritz! Euskal usaizkoak! Zuen gorputze-
tan, zuen adarretan dituzte kabiak gure
xoririk maiteenak.

Or errekek. Mendikoak, oindio garbi ze-
rate; saltoka beti. Neskatxak erromerietan
bezela. Arkaitz zuloetan zear, burrukan
arriekin eta sustraiekin; kantari orain, ne-
gar eta negar gero.

Zuek, ordea, erriko ibai ta errekek,
itsusi zerate. Oso beltz! Oria! Deba! Uro-
la! Urumea! Zuen amorraiak, zuen aingira
ta angulak, zuen loina noruntz, bañon no-
runtz joan zaizkigu? Errekatxoak arrai gabe

itsusi egin zaizkigu, bai, erri aundi ta urietara urbiltzean. Mendikoak neskatx iduri dute, beti saltoka; auek ez, eztute olako xalotasunik, eztute olako garbitasunik. Loi, zikin ta itsusi bai dabilta zokoz-zoko.

Euskalerrri! Zure apaingarri dira, egiazki, errekek, pagoak, aritzak. Zure ibaietako arraitxoak, eta zure pago-aritzetako xoriak, eta garoak eder dituzu. Baiñon...»

Aizeak or, nunbait, miña artu du, alegia, egotan. Negar bizian du Ramonek soñean, erropan, illean.

Illuna ere goitik datorkio mendiari. Basoari. Garoari. Ramoni. Aizea gogor. Illuna, beltz-beltz.

Euskal-Erriari kantatzean, arkaitz mutur-muturrean, izarpean izandu da gajoa. Besoak, luze, erabilli ditu. Beti itxas-alde-
ra, beti sortaldera. Beti basoetara edo errekatara.

Illea, izarditan bustita, aizearen mende izan du. Begiak oso zabal. Aoa patsetan. Geroago ta geiago. Kalenturea dauka pir-

pir zaiñetan, noski: ezurretan, biotzean.
Begietan, ao-sapaian...

«Bañon —esku biak altxatuz, zutik arkaitzean, dio gogorki, miñez—; bañon madarikatuak oraingo euskaldunak, erririk garbiena ta goxoena loitu bai dezute. Zer egin dezute oitura zaarrekin? Oitura zaarrak!!! Or, nun diran guziz baztertuak jai alai!!! Ta, ja ta...»

Aizea ixildu da. Goian illargia bete-betean dago. «Jai-alai» ta jai... alai? Noiz alaitu dezu? Lapurra ote? Zikiña ote? Jai-alai? Jai mingarri, noski, zu!!!

Lege zaarrak!!!

Illunpean dago. Aragiak izardiz ditu. Begiak bere tokietan ezin egonaz, sutan dauzka. Gorrotoak biotza jaten diola dirudi. Edo ero biurtu dala...

Lege zaarrak! Madarikatuak!!!

Lege zaarrak! Ja-ja, ja-ja...!!!

Jainkoa! Illargia! Izarrak! Aizea! Illuna!
Arkaitzean, mendian zin egiten dizutet: «Le-

ge zaarra neronek ausiko dut. Lege zaarra neronek lurperatuko dut. Bordarik ez dut izango; bañon, bordari izan nai dun mutillak, borda!, borda!, borda!, izango du, naiz amaikagarren zeure izan».

Illunpean, balantzaka, aurrera dijoa. Ontzak, bein eta berriz, buru ganean pasatzen zaizkio uuka.

Mamorroak, bere zulo-atetan, illetan edo kantuan ari dira. Ostroak goian, aizeari nai-esanetan.

Ramoni, bidean, illargiak lapurtzen dio.

III

Aste bete dut nere adiskide berriekin:
lau ume koxkor, bi emakume ta iru gizo-
nezko. Motxalleak!

Igandez, Jolas-etxetik atera ondoren,
kaiko bideari eman bearrez, mendiari eman
nion. Egun osoa, edo arratsalde osoa men-
dian barna ibilli nintzala. Neronek ere ez
nekin, ziurki, zertara ninjoan mendiruntz.
Mundutarren aldetik igeska ote? Edo bu-
rua galduta ote nintzan?

Burua galdu banu, obeto. Orain bizi
naiz zorigabe.

Mendian, arbolpean lotan ari nintzala,

erdi ametsetan edo, itzok entzun nitun:
«Txo, ixillik faborez». Emakume itza zan.
«Beitu, gizonetzko bat degu lo. Txuri-txuri
dago. Txorabioak jo ote du? Galdua ote
da?»

— Eta, ama, jo ta akabatu ta diruak
arrapatzen baldin ba dizkiogu?»

. Bildurrez esnatu nintzan.

Bereala adiskidetu giñan, eta berekin
bizi naia erakutsi nien. Euskaldundu motxa-
lieak baitziran, laister konformatu ziran,
eta oiekin naiz arrezkero. Aske!!! Gaur
arte...

Or-emengo olloekin ez degu goserik
igarotzen. Eta, gauez, alkarren ondoan,
mandioa baldin bada mandioan, zubia bal-
din bada zubipean, ederki asko berotzen
gera.

Ene anaiaren bordatik ere ibilli izandu
naiz. Alkar ikusi ere bai. Koñata erropa
garbiketan ari zala, bere gonak ikutuz gera
atzo. Baiñon ez naute ezagutu.

Gaur Donostitik igaro gera. Laister gu-

regana guardizibillak. Eta erritik atera gaitue lenbailen, esanaz: «Or ur xamar gelditu zaitzte; igesari ematen baldin ba diote, kaltegarri izango da, alegia».

Batek dionez, atzo illuntzean sua eman omen zioten Jolastokiari ta ordu oietan ijito taldea omen zan an.

Besteak dio, ordea, arkaitzetan bere burua zuela atzo, itota edo billatu omen zuten, bularrean pardeltxo bat zuela, Teresa, Mikel'enekoa, eta ordu artan ere motxallak zirala bertan.

Jolas-etxearen inguruan ijitoak? Gu gihan, alegia. Arkaitzetan Teresa?

Teresa esan dut...

Bañon ene lagun berriak akabatu ote dute Teresa?

Ni ote naiz Jolas-etxeari sua eman dionetatik bat?...

IV

Gau illuna izan dut, arraioa! Ene ametsak atsedean pitin bat artzeko ere ez dit betarik eman. Ramon! Zein ote dek Ramon ori? Ramon izeneko adiskiderik ez diat ezagutzen. Etsairik ere ez, alegia. Alajaña: Jesus, Mari ta Joxe! Lo itsusia, benetan. Atzoko nekea gozatzerik ez baitut. Ramon! Baiñon on ote dek, dalako Ramon ori?

Ez dik, ez orixe, Jainko eder, ez dik ez bititza alaia. Naigabez betea, noski. Etzakiat bordan nola bizi zan, baña andik atera ondoren, naiko buruko min izan dik.

•Miren! Miren!!! Ez al den entzu-

ten? Ekarritzan nere kaltzerdi eta abarka zaarrak».

Nere ametsean, bizitza beltza eman zioat bordako Ramon gajoari. Kabi goxoan biziko uan, alegia. Mendi goian. Borda txurian. Udaberrin, nere bordan bezela, garo usai gozoa. Udan, sagastietako ederrak begientzako. Udara azkenean, mandiora belarra ta garo gorria ekartzean, biotzean atsegin. Neguan, berriz, tximiñi beltzean sorgin ixtoriak, sutan gaztaña erreak; bukoian sagardoa. Amonaren ao-sapaian, illunabarrean, otoitza... Borda ederrean jaioa zan, noski. Bañon gure Euskal Erriko oiturak... oitura zaarrak...

«Eskerrik asko, Miren. Zer? Kaltzerdi zaar auek konpontzeko ez dezu betarik izan? Etxe guztin ez ote zegon obeagorik. Ormak zaarrak eta prakak zuloz beteak...»

Iñaki etzegon jolaserako. Egun berri txarrean sartu dala dirudi. Bart gogorki jo du trumoiak ortzean, mendiak ere erraie-tan dardaratuz. Iñaki'ri ere orixe gerta zaio. Barnea ametsean dardaratu. Burua mindu. Irudimena bizkortu. Eta esnatzean, lo bi-

tarteko ametsa zuan muñetan. Onegatik dio, noski, esnatzean, andreari deitzean: «Ramon!» Baiñon zein dut Ramon ori?

Begi zuloak illun ditu. Ogeta amar urte besterik ez izanik, gaur arpegin beste onenbesteren jabe da, alegia. Bizar tartean ximurtuak ikusten zaizkio. Gauak nekea eman dio.

Miren, bere emaztea, ogetabost urteko emakume piña, mendiko lorea bezin liraiña, gozoa ta ederra, gelan sartzean pixkat ikaratu izan da. Egunsentian, oetik jeikitzean, bere lñaki'ren arpegia etzan, ez orixe, ain illuna. A zer nolako laztan luzea eman dion kopetean txoriak atarian, zelai-ko arboletan, alkarri maite-maiteka, txio-txioka ekin diotenian!

Eta atzo zelaian, sagastiko belarrak biltzean!

* * *

Bazkal ondoa zen. Goiz-goizetik zen joana lñaki sagastira. Irribarrezka agurtu zun bere senarra Mirentxuk, ikulluan. Bera beiak jeisten ari zan bitartean atera zan,

«laister arte» esanaz. Gurdiarekin. Idiekin. Gurdian exerita, «Goizeko izarra, guztiz garbia» kantari. Pago lodiko birigarroak ere ain goxo etzun abesten. Ua eder kantatzea! «Goizeko izarra». Iñaki Mirentxuren goizeko izar. Mirentxu Iñakiren goizeko izar.

Eta sukaldeko lanak bukatu-rik, Miren sagastira juan zanean, antxen zebillen Iñaki izarditan, belar berdea ebakiz. Sagar ondoak garbituz. Bazterretako sasiak txikituz.

Iñaki, kantari izanik, kanta zale, euskal kanta zaar zale amorratu baitzan. Ao-sapaian zun kanta utzi ta beste kanta bat artuko du. Biotz-zokotik aterea, alegia:

«Mirentxu, nora zoaz,
eder galant ori?

Urruti xamarretik, garbi entzun du Miren'ek senarraren kanta; baita, maitasunez, garbi erantzun ere:

«Nere Iñaki, iturrira;
nai ba dezu, etorri».

Gogoz kantatu, ta tximeleta bai litzan, lora tartean saltoka urbildu zitzaion. Eta, bazkaltzeko ordua baitzan, belarrak eta sagar ondoak eta sasiak eta ixtoriak albora utzirik, or jon ziran Miren eta Iñaki, alkarri eskua emanik, arkaitzeko iturrira.

«Iturrian zer dago?

— Ardotxo txuria.

Biok edango degu,
nai degun guzia».

Eta edan ta jan gogotik, antxen, arrizko aulkian, aritz azpian. Aritzpeko janariak ez omen dio kalterik egiten sabelari. Onegatik, noski, aizpeko perretxikoak goxo.

An, iturriondoko aritz-adarretan amaika txorik bere kabia egiña zuten, alegia, eta Mirentxuren eta Iñakiren alkar-izketa ezti-tsua entzunik, igesari eman zioten. Ez urrutietara, kabian bai zituzten bere txoriñoak. Bañon, txio-txioka ta txotxo-txotxoka, or, izkutatu ziran. Orduantxe, iñakik ezpaiñetan sua zualarik, laztandu zun bere Mirentxo. «Miren —zion—, txoriak bere kumeak baiño maiteago zaitut. Or, adar lodiaren ostro artean izkutatuta... kabia. Guk ere

ba degu. Borda txuri. An, Miren, an nun dagoen. Uso txuria dirudi. Gure borda, zure ta nere borda. Or, goi-goiko adarrean, jilgeruaren kabi. Zenbat ume ote dizkin?»

Mirentxu'k, irribarrezka, lilluratua, begirutzen eta entzuten zion senarrari. Iñakik bai zekin, ongi jakin ere, Iparragirre'ren doñuan zortzikoa kantatzen. Baiñon izketan ere... Orlako izlari askorik etzan, ez, Arantzazu'ko prailletan. «Or goiko adarrean, jilgeruak zenbat ume ote dizkin?» Orduantxe sentitu zuala dirudi Mirentxu'k erraietan umearen lenbiziko jolasa. Eta adarretan, jilgeru bikotea alkarri begira, alkarri kantari bezela. Berak ere orlaxe zeuden iturrian.

Iñakik onela zion: «Miren, jilgerua or ari den txitxirri-txitxirri, txio-txioka adarrean puntan; txitxirri-txitxirri, txio-txio kabi-ko txori-kumeri. Txi-txirri, txi-txirri, txi-txio-txio maiteak maiteari. Iturrondo zoragarri ontan, nik ere orrelaxe kantatzen diñat, Usandizaga gure musikalari bizkorrarekin («Romanza de Joxe Mari»).

Iñaki'ri emaztea, kantaren bukaeran,

zerbait geiago urbildu zitzaion. Miren negarrez zegon. Malko ederrez, malko goxoz. Iñakik: «Miren, nere andrea, maite zaitut». Miren'ek: «Iñaki, nere gizona, aita izango zera. Aurdun naiz».

Jolasean ari zan itxas-aizea zelaietan. Goian lañoak mendi muturretik igesi, edo mendi muturretan aspertuta, or zijoazten, txuri, ortzean zear. Zelaietan kirkerrak nekatu gabe, lo-kuluxkarako betarik gabe, kanta ta kanta ari ziran. Jilgeruak, bat adarrean eta bestea kabian zeuden ixil-ixil. Iturriak, ura negar antzo botatzen zuela esan zitekean arkaitzera. Baiñon Iñaki ta Miren etziran konturatzen gauzokin.

Maitasun berotan, laztan luze bat eman zioten alkarri.

Gaur, ordea, Iñaki etzegon jolaserako. Naigabez altxatu da oetikan. Gau-ametsak miña ematen dio biotzean eta begietan.

Onegatik dio, alegia, bere baitan, jas-tean eta emazteari deitzean: «Ramon! Baiñon, zein, zein dek Ramon ori!»

Iñakiren begiak gaur goizean, iñoiz bai-

ño beltzagoak agertzen dira. Ogeta amar urte besterik ez, berrogetamar urte dituala edozeñek esango luke. Arpegian, bizar tartean aragia ximurtuta ikusten zaio. Gau txarra izandu alegia; atsedena eman bearez korputzari ta animari, nekea eman bai diote.

Onegatik ikaratu izan da pixkat Miren, senarraren deira gelan sartzean. Egun sentian, bera bosteterdietako altxatua bai zan, Iñaki'ren begiak etzioten ain itzal beltza. «Or zure galtzerdiak. Mendiratzeko auek aski izango dituzu. Besteak, perirako ongi gordeak ditut. Baiñon, Iñaki...»

Oe ertzean exerita dago Iñaki. Begiak lurrean josita. Burua jasotzeko indarririk ez óuela esan diteke. Besoak zintzilika. Miren, erritua, ondora doakio eta belauniko aurrean, lepotik eskuekin maitasunez eutsiaz lenbizi ta gero bere bular gañean estutuaz, dio: «Baiñon, Iñaki, zer gertatzen zaizu? Ondo-ezik al zera? Etzaude zeure onean... Oeratu zaitetz. Neronek egingo ditut base- rri-lanak...»

Iñaki'ri, ordea, ametsak jan dio itza ta

ezin erantzun emazteari. Illunpean dago. Emaztearen biotzak ere argirik ez une onetan. Illuna. Oñazea, Astuna, Naigabea!!! Biotzean ametsa du arantzarekin jolasean. Sartu emen, sartu an, biotza oso zulatuz. Buruan ere, iñoiz gerta etzaiona gertatzen zaiola esan bear. Emazteak, maite-maiteka, eusten dio bere bularraren kontra, biotzaren goxoa eman naian. Baiñon ezin, ezin dio eutsi buruari. Arri-losa biurtu zaiola dirudi. Astun!

— «Baiñon, Iñaki, zer dezun jakin al dezaket? Gaurko lanaren kezkarik ezazu izan. Mandioan badegu naikoa janari eta beiak ez dute barnean goserik izango. Zu, Iñaki, ondo-ezik zera noski, eta Jaungoikoaren izenean, seme berriaren izenean, oeratu zaitetz».

Emaztearen itzak, senarra, bere posturatik ateratzerik ez dute izan. Maite usaizko itzerditxoak izan arren, arantzarik ez dute gozatu senarraren biotzean. Iñaki ekaitzpean dago. Ekaitzaren orroa iruditzen zaio itza. Begi zulo aundietan bera, jasteko astirik gabe, antxen, emaztearen bularrean gelditzen zaizkio malkoak.

— «Baiña, lñaki nerea, zer dezu?...»

lñaki'ri, ordea biotzean jaio edo biotzean berotutako itzak eztarrian, ao-sapaira eldu baiño lentxeago, gelditzen zaizkio, eztarriari naigabea emanaz, korputzari ikarra emanaz. Edo, bestela, lñaki oindiokan amets-pean dago ta alperrik izan ameslari, ametsean, itzegitea. Ametsak, amets, alegia. Baiñon ametsak eztena ongi sartzen jakin.

* * *

Gure ixtoriko lñakik ogeita amar urte besterik ez ditu. Ezkonberri degu. Mingain luzeak, errietan orlakorik palta ez baita, trabenatan zioten alkarri, txurrutean naiko egin ondoren, bordako lñaki onezkero mutil zar izan bearko zuala. Sagardotegietan au besterik etzan entzuten, ez baitzekiten lñaki ezkongai zegonik. Inguruetan, gañera, etzegon baserrira ezkon nai zuen neskatxarik.

Mutil ona zen. lñoiz demandan ibiltzen etzekiña. Bertso-jolasean, adarra joaz noski, kantatu izan diote: «I, mutil zar beti. Anaiak jango dizkik ireak». Baiñon auzoko

berri iñork ez jakin ongi, eta gurasoak ilda zazpi illabetera, erriko bikarioak deitu zitun dardaraz eliza nagusian: «Bordako Iñakik, Azkoiti'ko Mirenekin ezkondu naidu...»

Azpeitiko azokan ezagutu omen zun. Eta orain, or nun dauzkagun, ezkonberri, lendabiziko aurtxoaren zai. Bordan. Mendi-mendiko bordan. Senar-emazteak bakarririk.

Ramon, bigarren anaia, beretzako ez baitzegon ezertxo ere bordan, aurreko egunean Eibar alderuntz atera zan.

Senar-emazteak gelan daude, une ontan. Ez dute Ramon'en berririk, urrutiratu baitzan. Nola bizi ote da? Odol batekoak dira, ta badu galdera orrek bere mamia.

Borda, txuri, eder agertzen da mendi goian. Euskal baserri polita, zelaiz ta zugazti ikusgarriz bildurik.

Baiñon ezkonberriak naigabez...

AURKIBIDEA

Itz bi	5
Lenengo zatia	
I	13
II	16
III	19
IV	24
V	27
VI	31
VII	34
VIII	37
IX	40
X	45
XI	49
XII	54
Bigarren zatia	
I	59
II	62
III	65
IV	67
V	70
VI	75
VII	78
VIII	84
IX	86
Irugarren zatia	
I	91
II	96
III	102
IV	105